

# GEU

2,40 €

2009ko apirila

194



# dalvez

maketazioa | inprimatze-lanak | diseinua



diaz de olano margolaria, 22 - gasteiz  
tl 652 77 65 09 - fx 945 24 52 69  
info@dalvez.com www.dalvez.com



**ensueños loinaz**

madre vedruna 18

vitoria-gasteiz 945 13 38 38



ensueños loinaz  
madre vedruna 18  
945 133838  
gasteiz



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

geu aldizkaria.  
urteko kuota: 20.- euro.

## sumarioa 194

### geupertsonaia

korrika. omenduak .....6-11

### geugaia

andolluko adin txikikoen zentroa .....14-19

### bat4tan

euskara justizia administrazioan .....24-27

### arte txokoa

colophon 09. aldizkari independenteen  
topagune nazioartekoa .....28-31

### euskara&historia

arabako euskara 10 datutan .....34

### beste:

gaztezulo .....20

musika zutabea .....33

geusex .....37

agenda, kaletik, euskaltasunean,  
proposamenak, araba bixotzian,  
historia eta idazleen zutabeak,  
errezeta eta umorea

6-11



**badator!**  
denok Tuterara  
Tutera-Gasteiz 09  
martxoaren 20tik apirilaren 6era



14-19



24-27




28-31

**GEU**

GEU aldizkaria | sorrera-data: 1992 | helbidea: Pedro Asua kalea, 2 - 3.a. 01008 Gasteiz | tfnoa. eta faxa: 945 22 21 53 | geugaste@grn.es | geu@geugasteiz.com | www.geugasteiz.com | zuzendaria: estitxu breñas glz. de zarate | kazetariak: edurne begiristain, ainhua arriaga, narea cuesta eta ane pedruzo | azala: inigo sarasola | argazkiak: edorta sanz | bestelako irudiak-bilaketa: estitxu breñas glz. de zarate, david alvez | testuen zuzenketa-orraketa-osaketak: estitxu breñas glz. de zarate | itzulpenak: geu aldizkaria eta aztiri | maketa: dalvez | umorea: inigo sarasola | araba bixotzian: josean morlesin | kolaboratzaileak ale honetan: patxi zubizarreta, kike fdz de pinedo, maider lacalle, iban zaldua, uhina, erlantz urtasun, miren lpz de arregi (emaize sexologia zentroa), andoni rodriguez (diocesanas-mendizorrotzakako ostalaritza eskola) eta gaztezulo. | publizitatea: idoia breñas, geu aldizkaria | sustapen-harpidetza saila: geu aldizkaria | etiketak eta publizitate fk.: edurne begiristain, ebz | inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati) | lg: VI-582/92 | issn: 1133-0988 | Frankeo Itundua 48/27 zenb. | aldizkari hau paper ekologikoaz egina dago | GEU aldizkariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.

**www.geugasteiz.com**

Laguntzaileak:





## GEU ELKARTEA

### KULTUR ERROTA

NAPOKA IRIA  
POP ROCK AKUSTIKOA  
APIRILAK 21 ASTEARTEA  
20:30 PARRAL TABERNAN

### IRAKURLE KLUBA

APIRILAK 23 OSTEGUNA  
EIDER RODRIGUEZ, HARAGIA, SUSANA 2007

### MAIATZAK 28 OSTEGUNA

CHINUA ACHEBE, GAINBEHERA DATOR  
DENA, ALBERDANIA-ELKAR 2007

HIKAATENEONAN, PINTORE KALEA 13,  
20:00

KONTAKTUA: IBAN.ZALDUA@EHU.ES

### GEUREKIN MENDIRA

APIRILAK 19 IGANDEA  
ESKAMELO (1292M) TOLOÑO MENDIKATEA  
GOIZEKOA  
IRTEERA: LOVAINA PLAZATIK/KOTXEZ  
ORDUA: 9:00  
ARDURADUNA: IÑAKI (945146296)  
GEUREKINMENDIRA@GMAIL.COM

WWW.GEUGASTEIZ.COM  
GEUELKARTEA@GRN.ES/945222153



## ABTX09

### SUSTRAIAK ERROTUZ

### FINALABTX09 SUSTRAIAK ERROTUZ

#### FINALA

• APIRILAK 4 LARUNBATA  
GASTEIZ (PRINCIPAL  
ANTZOKIAN) 17:00

#### FINALISTAK:

- JUAN MARI JUARISTI
- MANEX AGIRRE
- RIKARDO GONZALEZ DE DURANA
- IÑAKI VIÑASPRE
- ASIER OTAMENDI

WWW.BERTSOZALE.COM

## KORRIKA16

TUTERA-GASTEIZ.  
MARTXOAK 26-APIRILAK 5  
EUSKARAZ BIZI NAHI  
DUGUNON HERRIRA!

GASTEIZ. APIRILAK 5. KORRIKA  
16REN BUKAERA

- OKA. KUKAI DANTZA TALDEA
- ATXIKISTAN
- BETAGARRI

WWW.KORRIKA.ORG

## MUSIKA FAMILIAN. KONTZERTU DIDAKTIKOAK

EUSKADIKO ORKESTRA: ITSASO BETE NOTA  
APIRILAK 24, 19:00 / ELE BIETAN  
PRINCIPAL ANTZOKIAN (6 EURO)  
WWW.VITORIA-  
GASTEIZ.ORG/TEATROS /945161045



## IPUIN ILUSTRAZIO LEHIAKETA

JOXAN ORMAZABALEN 'HITZ ETA ZAUNKA'  
IPUIN ARGITARAGABEA ILUSTRATZEKO  
AUKERA  
10 URTE ARTEKO HAURENTZAT  
IPUINA & INFO+: ELKAR LIBURU-  
DENDETAN / WWW.ELKAR.COM

## EUSKAL NARRATIBA GAUR HITZALDI ZIKLOA. GAURKO ELEBERRIA

GASTEIZ. EHU. 10:30

• OROIMENAREN URA. IÑIGO ARANBARRI  
APIRILAK 22 EHU. LETREN  
FAKULTATEA. GRADU ARETOA  
• NOBELA ETA GENEROA. ANJEL  
LERTXUNDI  
MAIATZAK 6 EHU. LETREN  
FAKULTATEA. GRADU ARETOA

WWW.EUSKO-IKASKUNTZA.ORG

## KULTURA ETXEA

'ATE HAUTSIAK' POESIA EMANALDIA  
OIER GUILLAN  
HITZA, MUSIKA, IRUDIA... AHOTSAREN  
DRAMATURGIA  
MINTZALAGUNA-K ANTOLATUA  
HTTP://WWW.MINTZAPRAKTIKA.ORG/  
BLOGOSFERA/BLOGAK/INDEX.PHP?BL  
OG=14

## KULTUR CAMPUS

FANTASIAZKO IPUIN LABURREN XVII  
UNIBERTSITATE-LEHIAKETA  
EPEA: APIRILAK 29

FELIX UGARTE XVII ITZULPEN-  
LEHIAKETA  
EPEA: APIRILAK 29

INFO+: WWW.ARABA.EHU.ES

## EUSKARABILA IPUIN EROTIKOEN 14. LEHIAKETA

EPEA: APIRILAK 23  
1. SARIA: 500 EURO  
2. SARIA: 300 EURO  
EUSKARABILA ELKARTEA, 146 P.K 48970  
BASAURI  
EUSKARABILA@TOPAGUNEA.COM

## INTERNET BIDEZKO BIDEO LEHIAKETA

BARTZELONAKO EUSKAL ETXAREN EUSKAL  
ZINEMA ZIKLOAREN BARRUAN  
BERTSOLARITZA + BIDEO-SORMENA  
EPEA: MAIATZAK 3 (14:00)  
INFO+OINARRIAK:  
HTTP://BLOG.EUSKALETXEAK.ORG/CA  
TEGORY/FESTIVALS/ZINEMALDIA/

## IRUDITXOKOA

ARCTIC TALE (DOKUMENTALA)  
APIRILAK 3  
20:00 LUIS DE AJURIA ARETOAN  
GAUEKOAK & CINE CLUB ORHUM-EN  
ESKUTIK  
WWW.GAUEKOAK.COM

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Viceconsejería de Política Lingüística

# matiné

## MATINÉ

ANIMAZIO FRANTSESEKO ZIKLOA  
OIARRIZKO BERTSIOAN EUSKARAZKO  
AZPITITULUEKIN

APIRILAK 5-12-19

MONTEHERMOSO KULTURUNEAN

11:00 GONBIDAPEN BANAKETA / 11:15

PROIEKZIOAK

WWW.MONTEHERMOSO.NET

## MONTEHERMOSO. TAILERRAK (UMEAK & GAZTEAK)

CMK TALDEA

LARUNBATERO 11:00-12:30

DOAN, ALDEZ AURREKO IZEN-EMATEA

8-13 URTE BITARTEKOENTZAT

TXIKIART

LARUNBATERO 18:00

DOAN, ALDEZ AURREKO IZEN-EMATEA

4-8 URTE BITARTEKOENTZAT (HELDU BATEK  
LAGUNDUTA)

WWW.MOTEHERMOSO.NET

## MUSIKARRIK

- KARRIKAKO MUSIKA EUSKAL HERRIKO  
MUSIKA-TRESNEKIN

- MUSIKA-TRESNA TRADIZIOALEN  
ERAKUSKETA ANIMATUA (3 EGUNEZ,  
ASTEBURUA+ASTELEHENA)

DONIBANE GARAZIN. APIRILAK 13,

BAZKO ASTELEHENA

HERRIKO ETXEAK ANTOLATUA

## DONIBANE GARAZI

Baxe Nafarroa

2009-ko apirilaren 13 BAZKO astelehena

**MUSI  
KARRIK**

*Goizuko 10etatik goiti  
Karrikako musika  
Euskal Herriko  
musika-tresnekin*

*Ikusgarriak erririk.*

*11.00 Kontzertua elizan  
Organo/Xirula,  
Organo/Txistu*

*13.00 Herriko etxezko plaza  
MUTXIKOAK*

*17.00 Herriko etxezko plaza  
Euskal Herriko Musika  
tresnekin ikusgarria*

*5 egunez, larunbatan,  
igandean eta  
astelehenean  
Musika-tresna tradizioalekin  
erakusketak "animatua"  
Herriko etxezko plaza*

*Donibane Garazi*

## ZINEA ETURAN

HARRY POTTER ETA SORGIN HARRIA

APIRILAK 25 18.30

ETURAKO GIZARTE ETXEAN

## KULTUR IKASTAROETARAKO LAN POLTSA DEIALDIA

GASTEIZKO UDALEKO KULTURA SAILAK KULTUR  
IKASTAROK IZENENKO PROGRAMA ANTO-  
LATZEN DU URTERO, GIZARTE ETXEETAN  
BURUTZEN DITUGU IKASTAROEEN PROGRAMA-  
ZIOAREN BARRUAN. HAINBAT ESPEZIALTATERI  
BURUZKO IKASTARO TEORIKOAK DIRA KULTUR  
IKASTAROOK, ETA HERRITAR GUZTIEI  
KULTURAREN ALORRETAKEO EZAGUPENAK  
ZABALTZE DUTE HELBURU, ADITUEN LANARI  
ESKER, ERA ATSEGIN ETA DIDAKTIKO BATEAN.

2009-2010 IKASTURTEKO KULTUR IKASTAROEEN  
PROGRAMAZIOA GAUZATZEKO, PROIEKTUAK  
BEHAR DITU KULTURA SAILAK, ETA  
HORRETAKEO HONAKO DEIALDI HAU  
ZABALDU DU:

- KULTURA IKASTAROK BURUTZEKO  
PROIEKTUEN POLTSA OSATZEKO DEIALDIA.

DEIALDI HAUEN OINARRIAKI HIRI TARREI  
LAGUNTZEKO BULEGOETAN ETA ERREGISTRO  
OROKORREKO BULEGOAN (PLAZA BERRIAN)  
IZANGO DIRA ESKURAGAI OTSAILAREN 2TIK  
AURRERA, ETA PROIEKTUAK BERTAN AURKEZTU  
BEHARKO DIRA APIRILAREN 31A (BARNE)  
BAINO LEHEN.

INFO+: 945 16 13 48 / WWW.VITORIA-  
GASTEIZ.ORG

## BISITALDI GIDATUAK EUSKARAZ

PAGOETAKO PARKE NATURALA

APIRILAK 18

ELKARGUNE: LUKUNGO APARKALEKUA,  
ORIKO GAINENKO BIDEGURUTZETIK 2,5  
KM-RA

IBILBIDEA: ITURRARAN, ARTETXOTA,  
LAURGAIN, ETXETXO, BIZKAR, ORBELAUN,  
LUKUN, ITURRARAN

9:30-13:30. DOAN

943835389 / ITURRARAN@GIPUZKOA.NET

WWW.AIAPAGOETA.COM



montehermoso

MONTEHERMOSO KULTURUNEA

-BISITALDI GIDATUAK

ASTEAZKENERO, 19:30 /

LARUNBATETAN, 13:00 (EZ DA

BEHARREZKOA DEITZEA)

TALDEAK: ASTEARTETIK OSTIRALERA,

18:00 (AURRETIK ERRESERBA EGINEZ)

[945161859 /

EDUCACION@MONTEHERMOSO.NET]

BISITALDIAREN HASIERA: ARGIBIDE

ZERBITZUAN

-HAU EZ DA BISITA BAT

IGANDERO 13:00

BISITARIK PROTAGONISMOA HARTZEN

DUTEN ZENBAIT DINAMIKAREN BITARTEZ

ERAKUSKETARI BURUZKO DISKURTSO

BERRIAK ERAIKITZEN DIRA

WWW.MONTEHERMOSO.NET

ANDRA MARI KATEDRALA

945255135

WWW.CATEDRALVITORIA.COM

GASTEIZKO ERDI AROKO

HARRIESIA

ERRESERBAK: ANDRAMARI

KATEDRALAREN BISITARIEN

ZENTROAN (945255135)

4 BISITA EGUNEKO (IRAUPENA: ORDUBETE):

11:15/12:45/17:15/18:45

2 EURO PERTSONAKO

GATZ HARANA. GESALTZA AÑANA

ASTELEHENETIK IGANDERA

(JAIEGUNAK BARNE):

11:00/12:00/13:00/16:00/17:00/18:00

BISITALDIA EUSKARAZ: 10 LAGUN BAINO

GEHIAGOKO TALDEAK

HELDUAK: 3 EURO/LAGUNDUTAKO

HAURRAK: DOHAINEK/TALDEAK: EURO 1

945351111

WWW.VALLESLADO.NET



ARTIUM

>ERAKUSKETEN BISITALDI

GIDATUAK

ASTEAZKEN, LARUNBATERO ETA

IGANDERO 11:30

BANAKO BISITARIENTZAT. DOAN. PLAZA

MUGATUAK

>TALDEENTZAKO BISITALDI

HITZARTUAK

DERRIGORREZKOA ALDEZ AURRETIK

ERRESERBA EGITEA (73 EURO)

>ARTIUM TXIKIA

(3-5 URTE + HELDUAK, IGANDEETAN 12:15-

13:30)

>GOIZEAN ARTIUMEN

(6-11 URTE + HELDUAK, IGANDEETAN

12:00-13:30)

>FAMILIENTZAKO BISITA GIDATUAK

(5-11 URTE + HELDUAK/LARUNBAT &

IGANDEETAN 12:30-13:15)

INFO + ERRESERBAK: 945209010

WWW.ARTIUM.ORG

G.E.A., 'GASTEIZKO EUSKARAREN

AGENDA' DIGITALA JASO NAHI?

BIDALGUZU ZURE E-POSTA

GEU@GEUGASTEIZ.COM HELBIDERA

ETA HILERO JASOKO DUZU.

GASTEIZKO EUSKARAZKO EKINTZEN

BILDUMA DA G.E.A.

EZINBESTEKOA GASTEIZEN

EUSKARAZ MUGITZEKO!

GEU ELKARTEAREN OHARRA

EUSKALDUNON LAN POLTSAN

SARTU NAHI BADUZU, BIDALI IZEN-

ABIZENAK ETA KONTAKTURAKO

TELEFONOA GEUELKARTEA@GRN.ES

HELBIDERA

ESKERRIK ASKO!

KANGEUROAK

UMEAK ZAINTEZKO PREST BAZAUDE

EMAN ZURE IZENA ZERRENDIA

HONETAN ETA ZERBITZU HAU BEHAR

DUTENAK JARRIKO DIRA ZUREKIN

ZUZENEAN HARREMANETAN.

HORRETAKEO, BIDALI

GEU@GEUGASTEIZ.COM HELBIDERA

ZURE IZENA, TELEFONOA ETA

ORDUTEGIA

(GOIZEZ/ARRATSALDEZ/GAUZEG/EGUN

OSQZ/ASTEBURUAK).

GEU

laguntzailea:

GIZARTE EKINTZA

Obra Social


Caja Vital Vital Kutxa

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

**mezua** hizkuntzabatgaltzeko arrisku andagoenean, hizkuntza hori salbatzeko lehenengo baldintza beraudagoen herriak berreskuratu nahi izateada. euskararen kasuan, herriak sarriera kutsidueuskaraberreskuratu nahi duela. korrika, hain zuzen ere, borondate horren adierazpen grafikoa da. **baina-nahi izate a ez dan hiko a**. gure mezua, gure ongi etorria, haragodoa. herri tarren borondate ari txirik, korrika 16 ra etorrie zezik, **korrikan azaleratu kodennahiarikasuegi-tekodeia** luzatu nahi die gure euskal herri konorbanako, erakunde eta administrazio guztiei. erakunde eta administrazio ekeuskararen normalizazioa bultzatzean a h idugu, euskal dunok lekuguztietan (lantokian, kalean, etxean...), euskara erabiltzean a h idugu, eta euskal dunahidutenekeuskarakaste an a h idugu. euskarak, korrikak bezala, pausoa arin eta gelditu gabe egin behar du aurre-ra, **aurrerakaezdo ana atzerak a hastekoa-rrisku a baitago**. eta horretarako denok parte hartze a derrigorrezkoa da. korrikan bezala, **lekuko alurrera a erorezda din, eskuguztiak dirabe harrezko**. eus-

kal dunokongietorria egiten die gure herrira, gure etxera, gure artera datozen lagunei. aek-kberdinegin nahi du korrika 16 rekin: ongi etorri! handi bat luzatu nahi die euskararen berreskurapenean lagundu behar dutenerakundeguztiei, euskalgintza nda biltz anguztiei, euskaltzale guztiei, euskal dunei eta euskal dunahidutenguztiei, bertokoei eta kanpotik datozenei.

**ongi etorri korrikara! ongi etorri euskaraz bizi nahi dugunon herrira! ongi etorri euskaraz gozatzeko, lanegiteko, maitatzeko, saltzeko eta erosteko, negaregiteko, jolasteko... hautua egin du gunon herrira! ongi etorri euskaraz bizi nahi dugunon artera!**



**korrika 16 ongi etorri**

**euskaraz bizi nahi dugunon herrira!**

**tutera-gasteiz 09 - martxoaren 26tik apirilaren 5era**

**omenduak** urtetan zehar hunkamila izandira euskal herrirala bila, bizimodu hobebaten bila edo bizia halizateko leku bila, besterik gabe, bertaratudiren familiak. eta horien guztiaren artean, hainbeste kezka hainbeste, euskal herritarren ongietorria ongibaino hobeto hartu zetaulertuz, eka penagorai pagarrak egindiko gure hizkuntzari.

**euskal herrira heldu, euskararikasietarako erabili, umeei irakatsi, gure kulturaz gozatu, berari eka penak euskaldu-  
naegin, eta belaunaldiz belaunaldi gure hizkuntza-  
transmitituz duten milaka familia horiek izan nahidi-  
tugogoan korrika 16k**

aurten goi omenaldi gatzatzeko. omenaldi hau bi ardatz nagusi kontuan harturik planteatu nahidugu: batetik, eginduteneka penak gure eskerriz izango naemana hidiegu; bestetik, beraien guztieneka penak eta konpromisoa azaleratu nahidugu, kanpotik datorzen familientzako eta bertan jaioetako eta hazitako familia oraindikezeuskalduenentzako eredu izanda itez. bestalde, jakinada, euskal herriak kanpotik hainbathartu baditu ere, kanporahainbeste bidaliditu dela. horien artean, askok eta askok, belaunaldien podoeriozeuskaragaldudute. eta kanporajoan barik ere, horrenbeste izandira, frankismoaren edo frantses estatuko lege jakobinoen erruz, euskaragalduduten familiak.

**zorionez, horien artean badira euskaraberreskuratzeko, euskararenetxe eta-  
raitzuldadin, ahal ginaipagarrak eginduten familiake-  
re. horiek guztiak ahazteak ez lioke gure omenaldiari be-  
harduenosotasun abermatuko. bihoakie, beraz, euska-  
raikasietarako transmisio abermatuduten familiaguz-  
tiei, baita euskaragaldutaberrikasiz transmisioa ahal-  
bidetuduten familiaguztiei ere, korrika 16ren omenaldi-  
xumea.**



# GEUren kilometroa

2434 Gasolinera REPSOL / Gamarrako atea (Skramer) Gasteiz Apirilak 5



gonbidatuta zaudete!





# KORRIKA



# KORRIKA

## JON ANDER SANTOS 'TXONAN' 29 URTE

TXONAN GASTEIZTAR PETO-PETOA DUGU. LUIS ELEJALDEN ETA KOLDO MITXELENAN IKASI OSTEAN, INGURUMENKO KIMIKA IKASKETAK BURUTU ZITUEN ETA GAUR EGUN INGURUMEN TEKNIKARIA DA ELECTRA VITORIA KOOPERATIBAN. HIRU ANAIAREN ARTEAN GAZTEENA DUGU, AITORTU DIGU-NEZ BERA IZAN ZELARIK GURASOAK GAZTETU ZITUENA. APUSTU BATEK BIDERATU ZUEN TXONAN EUSKAL DANTZETARANTZ. HARRESIAN ZULO MUSIKA TALDEKO DANTZARIA ERE BADA.

## "Azkenaldian hainbatek hartutako erabakiek Gasteiz izorratu dute"



**t.** ane pedruzo **a.** edorta sanz

Amorrua ematen zion euskal jaietan dantzatu ezin izanak eta horregatik lagun bat konbentzitu zuen Gauekoak-en ikasten hasteko, eta gaur egun gutxi dira bere falta sumatzen duten erromeriak. Izan ere, lau urtetik hona Txonan euskal dantzen munduan erabat murgildurik bizi da eta gutxienez astean hirutan entseiatzen du Indarra elkartearen. Gainera, azkenaldian irakasle izatera ere ausartu da.

Elkarriketa honi hasieran arduraz eta lotsaz aurre egin dion arren, pixkanaka bere barneak ireki eta benetako Txonan nor den ezagutze-ko aukera eskaini digu...

**Jon Ander, zergatik Txonan?** Aspaldiko telebistako iragarki batean, beti "tx" soinua egiten hitz egiten zuen tigre bat azaltzen zen eta horregatik ikastolako lagunok berdinegi-ten hasi ginen. Horrela, Lopez Txopez zen, Gorka Txorta eta ni Jonan Txonan. Ordutik gehienek izengoitiagatik ezagutzen naute.

**Duzun biziorik handiena?** Erraza... dantza! Asteburuetan egunkaria hartu, erromeriak non dauden begiratu eta dantza egitera joaten den horietakoa naiz! Baliteke apur bat frikia izatea... kar-kar!

**Bertuterik?** Alaia naizela esango nuke, nahiz eta egun txarra izan beti irribarretsu azaltzen bainaiz.

**Akatsik?** Leo deklaratu beharra daukat eta leo gehienok burugorrrak eta kañeroak gara... Batzuetan harroputza ere banaiz.

**Zer eskatzen diozu bizitzari?** Berri txar gehiegi ez ematea, lasai bizitzeko.

**Zerk ateratzen zaitu zure onetik?** Zigarroen keak! Honez gain, bizi dugun egoerak sozio-politikoak ere, izan ere, egiten ditugun aldarrikapen ugari hasieratik ezertarako balioko ez dutela jakin badakigu eta horrek ezintasuna eragiten dit.

**GEU aldizkaria eta elkartearen berririk?** **Noiztik?** Aldizkaria Koldo Mitxelenan ikasten nuenetik ezagutzen dut eta gaur egun lanera Geu-ren euskararen agenda heltzen zaigu.

**Egunkari bat?** Ezingo nuke bat bakarrik aipatu... Egunero hainbat irakurtzen ditut interneten. Denbora dudanean baina, papezko formatuko egunkariak lasai irakurtzea gustatzen zait, halere daramagun bizitza eritmoarekin zaila suertatzen zait...

**Telebista saio bat?** Egia esan ez dut telebista askorik kontsumitzen baina ahal dudan guztietan *Muchachada nui* ikusten dut. **Beldurrik?** Lesionatu eta dantza egin ezin izanak beldur handia ematen dit, baina are gehiago eta serio jarrita nire lagun edo senide- ren baten heriotzak, baita nireak ere.

**Oporrak non eta zertarako?** Kultura alde- tik Errusia, Japonia, Kuba... ezagutu nahi ditut, eta naturari dagokionez, Costa Rica eta

Islandia joan nahiko nuke. Behin Islandia gainetik hegan gindoazela (hegazkinean) argazki bat atera nuen eta hori dudan argaz- kirik politena da.

**Nora ez zinateke joango?** Toki guztietara joango nintzateke, leku guztiei aukera bat eman behar zaiela uste baitut, ez dut aterik ixten.

**Eguna ala gaua?** Eguna, askoz gehiago pro- betxatzen baitut.

**Gasteizko gaua non?** Alde zaharreen.

**Liburu bat?** Gorkiren 'Ama'. Iraultzaile komunista baten amaren istorioa da. Kontaketa horrek irakurtzen erakutsi zidan, irakurtzeari beste zentzu bat hartu nion libu- ru honen ostean. Istorioaren partaide sentitu nintzen liburu honekin.

**Film bat? Zergatik?** 'Amelie'. Nire bizitzako une oso garrantzitsu batean ikusi nuen film hau, izan ere, pertsonalki aldatzen nengoen eta istorioak on egin zidan. Garai hartan Koldo Mitxelenako Txonan desagertu eta gaur egungo Txonan jaio zen.

**Edari bat?** Kalimotxo.

**Janari bat?** Haragijalea naiz, beraz azpizuna puntu-puntu.

**Kolore bat?** Txikitan gorria zen, baina orain berdea esango nuke.

**Musika talde bat?** Tapia eta Leturia, jainko- ak dira!! Behin Donostian beraien ikuskizun batean geundelarik, Gasteizkoei euren kon- zertu guztietara joateko autobus bat jarriko



zigutela esan ziguten, euren jarraitzaile fidele-  
nak omen baiken!

**Kirol bat?** Saskibaloia, txikitatik gustatu zait  
eta gaur egun Euskarri taldean jolasten dut.

**Zer da Gasteizek duen onena?** Txikia iza-  
nik denetarik egiteko aukera eskaintzen duela.  
Gainera toki guztietara oinez irits zaitezke.

**Txarrena?** Azken urteotan jasandako hiri  
plangintza proiektuak, izan ere, Gasteiz beti-  
danik hiri zaindua izan da eta azkenaldian  
hainbatek hartutako erabakiek hiria izorratu  
dute.

**Euskaraz bizi al daiteke Gasteizen?** Ez da  
erreza, baina argi dago euskaraz bizitzea eus-  
kaldunon eskuetan dagoela. Nire ustez euska-  
raz egitea edo ez egitea ohitura kontu bat da.  
Halere zaila da, adibidez nire auzoan ez dut  
ezagutzen okindegirik non ogia euskaraz eros  
dezakedan... Hala eta guztiz ere, nik adminis-  
trazioan, gizarte etxeetan eta horrelakoetan  
beti euskaraz egiten dut. Honez gain, euskal-  
duntzea bultzatzeko asmoz lanean euskara  
plan bat gauzatzen gabilta, zeinaren bitartez  
euskarazko klaseak doan eskaintzen diren,  
Korrikan km-ak erosten diren, barne komuni-  
kazioak euskaraz eta erdaraz egiten diren...

**Amets bat?** Bizitza proiektuak pixkanaka  
betetzen joatea.

**Amesgaizto bat?** Maite dudan norbaitek  
arazo fisikoak izatea, menpekotasunak izuga-  
rri izutzen nau.

**Iragana, eguna ala etorkizuna?** Eguna,  
gaur egun egoera polit eta eroso batean nago-  
elako, beraz horrela jarraitu nahi dut, aurrera  
eta atzera begiratu gabe.

**Zer eskatzen du herriak?** Askatasuna.

**Dantzak erotzen zaitu, izugarri maite  
duzu, baina dantza bat aukeratzeko gai  
izango zinateke?** Hasieran ikasitako eta beti  
dantzatuko dudana *polka pik*.

**Eta abesti bat aukeratu beharko baze-  
nu?** Banan banangoa ere asko gustatzen zai-  
dan dantza bat da, beraz Aita San Miguel  
abestia aukeratuko nuke.

**Erronkarik?** Gaur egungo Txonan bere  
horretan manten dadila ●



**BATXILERGOA**  
zure etorkizuna gaur hasten da

**ESKOLAK GOIZEZ**

DBH / LANBIDE HASTAPENA /  
HEZIKETA ZIKLOAK (eskolak egunez eta gauez) /  
LANERAKO PRESTAKUNTZA IRAUNKORRA

**Jesús obrero**  
*jesuitak*



**ATE IREKIAK**

astelehen eta ostegun guztietan  
**18:00etan**

Francia, 32. Vitoria - Gasteiz / tel. 945 000 333 / [info@jesusobrero.org](mailto:info@jesusobrero.org) / [www.jesusobrero.org](http://www.jesusobrero.org)

HICHTCOCK-EN AITAK, ZINEMA ZUZENDARIA ARTEAN HAUR TXIKIA ZELA, KARTZELARA ERAMAN ZUEN MUTIKOA. HANGO ZAINZAILA LAGUN BATI SEMEA ZIEGA ILUN BATEAN SARTZEKO ESKATU ZION, BERTAN ORDU LAURDEN BATEZ ATXIKITZEKO. ZER BILATZEN ZUEN GAUR EGUN ESKANDALAGARRITZAT JO DEZAKEGUN EKINTZA HORREN BITARTEZ? BADA SEGURUENIK SEMEA JAKINAREN GAINEAN JARTZEA: KONTUZ, BIZITZA OSO GOGORRA DA ETA TENTAZIO ASKO TOPATUKO DUZU; KONTUZ, OKERBIDETIK ABIATUZ GERO HEMEN AMAITUKO DUZU, HEMEN USTELDUKO ZARA...

## TXEMA FDEZ. DE GOROSTIZA, GAZTAROAN EGIN-EKO KIDEA: “GUK LAGUNTZEA NAHI BADUZU, HEMEN GAUZKAZU”



bertako neskak inauteri jaian

### t. patxi zubizarreta & gaztaroan ekin

Arrazoiak arrazoi, Andollura iristen diren neskak epaitegitik zuzenean etortzen dira -haien etorrera horretan gurasoekiko harremanak ere izaten du eraginik-, batzuetan ertzaintzaren autoan, batzuetan eskuburdinekin. Sarrerako atera Luna zakur otzan handia hurbiltzen zaie, orduan, laztandu dezaten. Eta begirada zakurraenetik eraikinerajotzen dutelarik, bestorduz Ferrocarril Vasco-Navarroko tren geltokia topatzen dute; hala ere, hemen neskak

ez dituzte ziega ilun batean sartzen, leihoa blokeatua duen lehen solairuko gela batean baizik. “Baina ez dago barroterik eta!”, ateratzen zaio zenbaiti gela hutsera sartzean.

“Epaitegian ikusten baldin badute familia ezin dela neskaren kargu egin, kautelazko neurria agintzen dute eta hemen gehienez ere sei hilabetez egon beharko dute audientzia egin arte. Adin txikikoak ez dira epaitzen; haien-

tzat audientziak egiten dira, epaile, fiskal eta abokatu berezietekin”, dio Txema Fdez. de Gorostizak, eta hark luzatutako foiletoan honakoa irakur daiteke: «Andollu: Hezkuntza zentroa. Hezkuntza hautabide bat neska liskar-tientzat»; eta azalean hor ere tren geltokia ageri da, eta hari erantsitako eraikin apalagoa, eta berotegia hondoan. Txemaren ibilbidea, baina, beste gelto-ki batean hasi zen.



# **ANDOLLU: DENBORALDI BATERAKO GELTOKIA ADIN TXIKIKO NESKENTZAT**

## **3 GELTOKI**

### **1. geltokia: Abetxuko**

“Diocesanas-eko ikasle batzuk, Javier Arregiren bultzadarekin, Abetxukora joan ginen begirale, udaleku bat prestatzeko asmoz. Auzoan baziren hogeit hamar mutil, uda zein negu, elizako arkupeetan egonean egoten zirenak: eskolan porrot egin, familian arazoak, lana aurkitu ezinik... Eta gazteak gustura ez, eta auzoan kexak haien txantxak edo txikizioak zirela eta. Hala bada, hizketan hasi ginen, bai gazteekin beraiekin bai Udalekoekin. Laster ginen lanean, Zadorrako bazterrak garbitzen, hesiak pintatzen, lorategiak txukuntzen, eta bide batez diru apur bat lortzen ere bai, eta hori guztia ikastaroekin osatu genuen: eskulanak, motoren mekanika, elektrizitatea... Gure lehen kale lana izan zen”.

Baina gero gerta zitekeen gazte haietxek izatea beren zentrorra lapurretan sartzen zirenak... Argi geratu zen haiengan hobeki eragiteko, aktiboago ekiteko, diagnostiko zehatzagoa eta sakonagoa behar zela. Haien familien azterketa egin behar zen, haien bizigiroa eta bizimodua... “Eta ohartu ginen mutil haietako batzuk bere inguruetik ateratzea komeni zela, heziketa eta lana uztartu behar zirela, eta Udalaren nahiz Aldundiaren babesarekin, Aramaioko Mendixola baserrira joan ginen”.

## 2. geltokia: Aramaio

“Egunon Mendixola izeneko elkartea sortu genuen hango baserrian, 1981ean, ohiko baliabide formatzaileek huts egin zutenekin, ingurua distorsionatzen zutenekin. Hasi-eran, astelehenetik ostirala bitartean egoten ginen haiekin, hiru hezitzaile gau eta egun 12-14 urteko hamabost mutil arabarrekin. Ateak zabalik egoten ziren eta gutxienez hiru hilabete egotera beharturik zeuden; gero, haiek erabaki beharra zeukaten...”. Eta gazteek bertan geratzea erabakitzen zuten.

Antón Makarenko errusiarren ‘El Poema Pedagógico’ esperientzia eta liburua gogoa, gazteentzako ikasketa egokiak prestatu, baserriko lanetan trebatu, eta, autokudeaketa ardatz, halako proiektu asanbladazale bat garatu zuten denen artean. “Hilero 5.000 pezeta jasotzen zuten, baina zerbaitetan huts eginez gero edo ardurak bete ezean, denen artean erabakitzen genuen hortik zenbat kentzen zitzairen, zenbat diru eta zein eskubide... Hala ere, hiruzpalau urteren buruan proiektua sendotu egin zen, egokitu, eta hezitzaile eta txanda gehiagorekin egin zuen aurrera. Ordu arte fraileen pare bizi izan ginen, baina benetan garai gogoangarria izan zen”.

## 3. geltokia: Andollu

“1995.ean gure artean desadostasunak egon ziren eta, bestalde, Lurralde Historikoen Legearen arabera, eskuduntzak Jaurilaritzaren mende geratu ziren. Aldaketak etorri ziren eta batzuek Mendixola uztea erabaki genuen. Jarrera arazoak zituzten neskak, orduan, Cáceres, Murtzia edo Kataluniara eramaten zituzten eta haiekiko kezka sortu zitzaigun, hemen ez baitzegoen haiek hartzeko toki egokirik. Garai hartan Jauregi zegoen gobernuan eta, haien adostasunarekin eta gainerako erakundeen babesarekin, Andolluko geltoki zaharra eraberritzea eta egokitztea erabaki zen, hau da, harrezkerro bertan ezarriko zutela Adin txikikoen zentroa. **Gaztaroen Ekin** sortu genuen orduan Pilar Esguevak, Javier Iturrospek eta hirurok”.

Andollun, gehienez, Autonomia Erkideko zazpi neskarentzako tokia dago; denak ere neurri judizialekin etortzen dira, erregimen itxi, erdi ireki edo irekiarekin, eta gero autonomia pisuetan jarrai dezakete Gasteizen, neskak eta mutilak batera, baina Txemak gogoan du -Zumarragako mutilentzako zentroa atentatu batean suntsitu zutelarik- denboraldi batean Andollun ere neskak eta mutilak hartu behar izan zituztela eta garai latza izan zela hura. “Koste pertsonalik handiena orduan izan nuen, benetan gogorra izan zen”.





## DESKARRILAMENDUA

Rosa Monterok, 'La hija del Caníbal' nobelan, bizitza ibilbide luze eta neketsua dela dio. Ibilbide luzeko tren batekin ere alderatzen du, tarteka gerran dauden lurraldeak, tarteka ingurune basatiak zeharkatu behar dituenak. Arriskuak asko dira eta deskarrilamendua aski gertakari ohikoa da. Norabidea galtzea erraza da eta batzuetan infernu zuloa joan gaitezke eta, bestetzetan, errailetatik irten gabe ere, abiada galtzen joan gaitezke, pasibitateak eta ohikeriak joak, konturatu gabe hilik bizitzera.

Andollura deskarrilatu duten neskek etortzen dira. "Batzuetan, hartu diren neurriak ez dira nahikoa izan eta espedienteak pilatu egin zaizkie; beste batzuetan bortizkeria domestikoagatik ekartzen dituzte". Azken hauek gero eta gehiago omen dira: eskola porrota, etxeko arauetako errespetu eza, elkarbizitzaren hondamena, lagunarte marginalak, drogak... "Bitxia da: ez dute arazo ekonomikorik izaten, haurtzaroan dena lortu ahal izan dute -bizikleta, jostailuak, arropak, ordenagailua, saketako telefonoa...- eta ezetzak jasotzen hasirik, matxinatu egiten dira, gurasoen kontra altxatzen dira, bortitz altxatu ere, deabru txikiak balira bezala".

Zenbaitetan, guztiz deskarrilatu gabe ere, badirudi gurasoak bidean bertan goxo geratu direla, seme-alaben heziketa besterengan delegatu dutela: eskola, akademia, kontserba-

torioa... Eta gurasoen ezkutuan, gazteak gaueko lauak arte jarraitu du txatean edo messenger-ean, eta goizean ez da institutura joan, eta... Komunikazio falta gertatu da, afektu gabezia. "Rolen galera nabaria da, berdintsu jantzen diren ama-alabak, konplizitatea nahi dutenak, baina gero mugak ipintzen ez dakitenak, ezin dutenak... Alaben mendean bizi dira, dirua ematen diete azkenean bakean utz ditzaten, eta batzuetan beldurra ere izaten diete". Bette Davisen argi zioen: "Seme-alabek sekula gorrotatu ez bazaituzte, ama edo aita ona izan ez zaren seinale". Eta hainbeste liskar eta gatazkaren ondotik, egoera kontrolaezina bilakatu da, halako gorpil zoroa osatuz, eta epaileak hartu behar izan du azken erabakia... Dena dela, Txemak aitortzen duenez, Andollun egoera bestelakoa da eta bertako bizimodua ez da bereziki gatazkatsua; etxekoekin ez bezala, hemen bizimoduak gutxi-asko arauen errailen artean egiten du aurrera eta neskek segurtasun hori, kontrol hori eskertu ere egiten dute.

"Gurera iristen direnean, halako egokitze bat egin behar izaten dute. Alde batetik, mediku kontrola egiten zaie, baina bestetik hausnarketa egunak izaten dira. Material batzuk ematen zaizkie, gure arauen berri eskaintzen diegu, eta galdeketa bat idatziz erantzunarazi, eta gero, elkarriketak, zenbait profesionalekin. Beren egoera pertsonala aldatu dela jabetu behar dute. Tutore pertsona-

## andollukozentroa

la ere egokitzen zaie eta, hiruzpalau asteren buruan, halako balorazio bat egin behar izaten dugu, neskaren hezkuntza proiektua diseinatu”.

Gerora kanpokoekiko lehen harremanak etorriko dira: aurrena gutunak, hurrenak bisitak -betiere hezitzaileen laguntzarekin, izan familiarekin, izan lagunekin; noizbait kanpoan bazkaldu ere bai-, eta azkena etxeratzen hastea -ahal denean, harremana guztiz hondatu ez bada-, egun batez, asteburu batez... “Adin txikikoarekin lan egiten dugu, noski, baina baita familiarekin ere”.

Lehengo ikasketei berrekin ahal izango diete -jatorrizko lurraldean ere bai-, edo Andollun bertan ikasi. Eta eskolekin batera, baratzazaintza, eskulanak, artelanak... Baina badira neskek beraiek aukeratutako tailerrak ere, hala nola gaur egungo gaiak, baloreak, tratu txarrak... “Sexualitatea dute, hala ere, gairik erakargarriena”. Eta Txemak gogoan du Andolluko egonaldia bitartean erditu den neskaren bat edo beste, edota haurdun egon direnak.

Mendixolan bezala, Andollun asanbladak ere garrantzi handia du; bertan erabakitzen dira egin beharreko erosketak -xaboia, xanpuak...-, hilean behin egiten den afariaren menua edota zigor txikiak nahiz pribilegioak...

“Oso litekeena da hasierako hilabeteetan guri gauza askorik ez kontatzeari, baina halako batean, ustekabean, barrena askatzen dizute, asaska-

tu egiten zaizkizu...”. Eta, bat-batean, jasan izan duten jazarpen sexualaren berri ematen dizute. Haurra zetazko papera bezalakoa baita, eta ukitzen duen guztiak bere marka, bere aztarna uzten baitu. “Eta zuk entzun egiten diezu, azkenean komunikazioaren unea iritsi delako. Eta kasu horiek dira mingarrienak. Hala ere, guk nesken potentzialtasunari antzeman behar diogu, hori bultzatu behar dugu. Gehiegikeria sexuala hor egon da, tamalez, baina gainditu behar da, aurrera begiratu beharra dago. Eta orduan guk esaten diegu: Guk laguntzea nahi baduzu, hemen gauzkazu”.



jarrera arazoak zituzten neskak, orduan, cáceres, murtzia edo kataluniara eramaten zituzten eta haiekiko kezka sortu zitzaigun.



“neskak, ezetzak jasotzen hasirik, matxinatu egiten dira, gurasoen kontra altxatzen dira.

“zenbait guraso alaben mendean bizi dira, dirua ematen diete azkenean bakean utz ditzaten, eta batzuetan beldurra ere izaten diete.



© elena odrizola

## ABIATZEA

Anjel Lertxundi idazlearen zutabe baten bitartez ezagutu genuen Dafne txikiaren ondoko pasadizoa; Marisa Madieriren ‘La radura’ (‘Basoko argigunea’) ipuineko protagonista txikia koadernotxo bat betetzen hasi da eguneroko gorabeherekin. Eguneroko baten moduan idazten du eta ariketak, atsegina emateaz gain, asko laguntzen dio mundua ordenatzen. Behin, oster, basoan barrena suge bat ikusi du zozo bat irensten eta neskari munduaren ordena bat-batean behera etorri zaio: munduaz zuen ikuspegi onbera itzulipurdikatu egin zaio, dagoeneko ez da ederra ez idilikoa.

Andollura etortzen diren neskak ere hamaika eszena gordinen protagonista eta lekuko izandakoak dira. Ahal dela, esperientzia hori gainditzera ekarri dituzte geltoki zaharrera: deskonektatzera. Eta batez beste bederatzi hilabete-urtebete igarotzen dute bertan. Hezitzaileen lana parentesi bat zabaltzea da, haiei hausnarketa eginaraztea, berriro abiatzeko prest jartzea, neskari autonomo izateko baliabideak ematea, askotan, familiarekiko harremana oso hondaturik egoten delako. “Batzuek trauma handiak ekarri dituzte eta horiek nekez gainditzen dira epe laburrean. Gertatu izan zaigu bakarren batek bertako egonaldia luzatzeko eskatu izana, eta guk nola edo hala lortu... Eta hemendik irten ostean ere deitu izan digute, besterik gabe geratzeko edo laguntza eskatzeko”.



Irten aurretik, baina, beraiek aukeratutako menu batekin, bazkari-ospakizun bat egiten dute, eta bertan egoten dira egonaldian zehar lagun izan dituzten neskak, tutorea, bereziki hurbil sentitu dituztenak. Andollura etorritako neskak ez dira estigmatizaturik irteten, eta orain ateak zabalik dituzte, abiatzeko moduan daude berriro ere.



Anjel Lertxundiren zutabeari jarraiki, antza, Dafne txikiari, eszenaren lekukoa izan eta gero, sekulako zalantza piztu zitzaion: egunero kontatzen zituen gorabeheren artean, jaso behar al zuen sugeak zozoa irentsi zueneko imajina hura? Andollun egondako neskek beren baitan eramango dute lehengo bizialdia; baina Andollutik irten ostean aurrekari penalak guztiz desagertuko zaizkie, adin txikikoak izan bitartean gertatu den guztiaren akta desagertu egingo da eta beste koaderno bat zabaldu ahal izango dute.

Amaieran, hezitzaile eta lagunekin batera, sarrerako atera Luna zakur otzan handia hurbilduko zaie, laztandu dezaten, agur dezaten. Eta begirada zakurrarenetik kanpoaldera jasotzen dutelarik, Ferrocarril Vasco-Navarroko ibilbidea eta errepidea topatuko dituzte hesiaren bestaldean, berriro ere abiatu daitezen, berriro ere aukera egin dezaten.

# KOLONBIA: AMETS POSIBLEAK

TESTUA ETA ARGAZKIAK: IRANTZU PASTOR  
KAFE ALEAK ETXE ATARIETAN  
LEHORTZEN DIREN BITARTEAN,  
KOLONBIAR ANONIMO ASKO ATEZ  
ATE DABILTZA, IRTENBIDE BAT  
BILATU NAHIAN BIZI DUTEN  
GATAZKA KONPLEXUARENTZAT.  
APIRILEKO GAZTEZULO  
ALDIZKARIAK DAKARREN GAETAKO  
BAT DA: KOLONBIAKO AMETSAK.





## 101.000

milioi dolarreko laguntza jaso du Israelek AEBen eskutik, 1949an Israelgo estatua sortu zutenetik. Dirutza horren erdia baino gehiago, 53.000 milioi, laguntza militarra gisa jaso ditu. Azken 20 urteetan, berriz, 3.000 milioi jaso dituzte urteko, batez beste. Eta palestinarrek zer? Egunra, jakina!



## 16

milioi hektareatik gora erabiltzen dituzte Brasilen landare transgenikoak ekoizteko: munduko produkzioaren %12 han ekoizten dute. 2007ko datuak dira, oraintsu argitaratuak. 16 milioi hektarea horietatik 14tan soja landatzen dute, 1,5ean artoa, eta gainontzekoetan bestelako produktuak. Bizi-modua erabat transgeniko bihurtuko zaigu?

# gaztezulo.com

HI ETA HIRE MUNDUAK





★ **IZARRA TABERNA - JATETXEA**  
BITORIANO - ZUIA (ARABA) • ☎ 945 430 073

# Euskara, gure lurralde libre bakarra



araba@aralar.net • Izardui komandantea 7 behea • 945 154 220




**IZARRA TABERNA**  
Eguerditan, asteleneretik ostiralean  
**JANTOKI**  
**VEGETARIANO**  
SAN FRANCISCO XABIERKOAREN KANTOIA, 4  
01001 - GASTEIZ  
TEL: 945 27 68 33



**25 ARTEPAN**  
1983-2008 bitoria - gasteiz  
Jesus Guridi, 2  
TI. 945 27 88 88 - 28 72 37  
El Boulevard Merkatal Zentroa - TI.  
945 068 888  
01005 GASTEIZ

## ZURE HARATEGIAK



**AIZPEOLEA**

harategia  
arraindegia  
frutategia  
okindegia

Jose Luis  
**GARMENDIA**  
Harategia-urdaitegia

Florida Azoka 2 eta 3 TI. 945 13 24 48

Andaluzia kalea 13 TI. 945 28 79 42  
GASTEIZ

*gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak*



Obren egite  
eta zuzentzea

**ALTUNA Estudioa**

"Azterlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"  
Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa

Florida kalea, 9 behea - 01005 GASTEIZ  
Tfno./Faxo: 945 14 02 17 • Mobilak: 639 81 51 30



**UZTINTZA**  
**KERAMIKA TAILERRA**

**KERAMIKA HERRIKOLA**  
**ETA BERRIA**

HEDEGILE kalea (Korreria), 120  
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ



• Euskaltegi Homologatua • Musika eskola  
• Helduentzat • Dantza  
• Ume eta gaztekoentzat

Uruguai kalea, 9 - TI: 945 24 49 65  
Abendaño kalea, 48 - TI: 945 22 34 33

Euskadik  
behar zaitu



Julian de Apraiz kalea, 1 TI. 945 213 390 - Faxe: 945 213 390  
01012 GASTEIZ e-posta: errotadental@euskalnet.net



Errege atea, 9 - GASTEIZ  
TI: 945 25 05 30 / 945 25 66 85



Madalena kalea, 2  
TI: 945 13 27 20



Jantziak  
San Antonio, 11 - TI. 945 23 39 90  
H. Fournier, 15 - TI. 945 15 53 39



Jose Lejarreta 9 behea  
Tfnoa 945 28 41 96  
01003 GASTEIZ

## ARF'09 - ROCK-ARI ONGI ETORRIA EGITEKO PREST?

**t./a.** ane pedruzo

Azkena rock festivalak azkena izateari utziko dio aurren, izan ere, egutegian salto egin eta maiatzaren kokatu du bere egitaraua. Zehazki rock-aren maitaleek maiatzaren 14tik 16ra bitartean izango dute euren begiko taldeak ikusteko aukera. Dagoeneko badakigu, besteak beste, The Black Crowes edota Reverendo Parker talde ezagunak gure artean izango ditugula bertan, kalitatea beraz ez da faltako! Baina... ba al dakigu norainokoa den gasteiztarron rock zaletasuna? Goazen kalera!

### 1. Azkena rock festivala gogoko al duzu?

Zer deritzozu maiatzaren egiteari?

### 2. Zer musika mota gustatzen zaizu? Zergatik?

### 3. Kontzertuzalea zara? Zein da ikusitako azken kontzertua?



**Marga Mosquera, 50 urte, irakaslea**

1. Bai noski! Rock musika asko gustatzen zait eta festivalarekin Gasteizen sortzen den giro rockeroa ezin hobea da! Datoren aldetik, nire ustez maiatza ez da hilabete txarra baina iraila egokiagoa da, egun horietan jendea oporretatik bueltan dagoelako eta lanean hasi aurretik horrelako jai bat izateak asko motibatzen duelako... Gainera, nire aburuz irailean maiatzaren baino eguraldi hobea egiten du.
2. Rock-a, jazz-a... baita musika nahasketak ere. Batez ere munduko kultura desberdinen uztarketak gustatzen zaizkit.
3. Bai, nahiz eta orain kontzertu gutxitara joateko aukera dudana, seme-alabak... direla eta. Ikusi nuen azkena Pearl Jam-ena izan zen Donostian.



**Monica Saez de Heredia, 36 urte, administraria**

1. Ez naiz inoiz egon, izan ere, ez dut musika gogorra gustuko. Gainera aspaldiko taldeak etortzen dira eta ez dira oso ezagunak, nik behintzat ez ditut ezagutzen. Datari dagokionez, maiatzaren eguraldi hobea egiten duenez, ondo deritzot.
2. Denetarik. Halere, taldeak baino kantariak gustatzen zaizkit gehiago, esaterako Benito Lertxundi, Joaquin Sabina... Dena den, guztien artean Bruce Springsteen hoberena da, izugarria da!
3. Ikusi dudana azken kontzertua Bruce Springsteen-ena izan da eta ikusiko dudana hurrengo ere berarena izango da.



**Ibon Zabala, 28 urte, irakaslea**

1. Inoiz egon ez naizen arren, ekimen interesgarria iruditzen zait talde internacional anitz ikus eta entzuteko aukera eskaintzen baitu. Maiatzaren egiteak bere azalpena dauka, izan ere, epe horretan musika talde gehienak biran daude oraindik, beraz merkeagoa da talde onak Gasteizera ekartzea. Oro har ondo deritzot.
2. Denetarik, une bakoitzak musika mota bat eskatzen baitu.
3. Urtean pare bat kontzertu ikusten ditut. Ikusitako azkena Katamalak Durangon eskainitakoa izan zen.

## idazleen zutabea

### WE WANT TO BELIEVE

**t.** iban zaldia

Veleiako aferak ezin hobeki islatzen du euskaldunon artean *historiomaniak* izan ohi duen eragin askotan tamalgarrria. Neu ere, jakina, poztu nintzen "aurkikuntzen" berri izan nuenean: hain gutxi dakigu duela bi mila urteko hizkuntzen egoerari buruz munduko txoko honetan ezen, ziurrenik, ikerketa zientifikoetan aurrerapauso garrantzitsua ekarriko baitzuten idazkun haiek guztiek. Baina laster sortu ziren zalan-tzak, eta joan den udazkeneko adituen txostenek susmoak berretsi zituzten: hizkuntzalaritzaren ikuspuntutik faltsifikazioak baino ezin dira izan idazkuntako asko; lan arkeologikoak ez ziren modurik egokienean burutu; datazioak ez ziren berme zientifiko nahikoekin egin. Eta abar.

Horrek guztiak nahikoa izan beharko zukeen, gutxienez, gaiaren inguruko zuhertasuna zabaltzeko, berri gehiagoren esperoan bederen: azken finean, gaiaren inguruko aditurik adituenetako batzuk izan dira faltsutzeaz ohartarazi digutenak, eta, zinez, ez dut imajinatzen idazkunak *benetakoak* izatea gehien desioke zukeen inor, haiek baino.

Baina alferrik da: norbaitek erabaki du euskaraz ari-zen garen arabarrok (eta euskal hiritarrok) halako berme baten laguntza ezinbestekoa dugula gure hizkuntza-eskubideak hobeto oinarritzeko. *Sustatu* web orrian agertu zen sarrera batek iradoki bezala, *I Want To Believe* sindromea deitzen diot nik horri, *X-Files* telesailako Mulder agenteak bere bebarruan zeukan UFOaren posterra gogoan hartuta. *Se non è vero, è ben trovato*, eta aurrera bolie.

Ez dut uste, ordea, Arabako euskaldunok halako makuluen premia dugunik. Hizkuntza gutxiengo bat gara, txikia, ados, baino batzuek nahi luketena baino zabalagoa eta sendagoa, eta eskubide batzuk daukagu: hori nahikoa izan beharko litzateke hizkuntzaren aldetik erosoagoa izango zaigun testuinguru bat eraikitzen jarraitzeko. Irudipena daukat horrela tematuz gure teilatuaren aurka harrika (*ostrakaka*) ari garela. Eta, zer esanik ez, irrigarri geratzen ●



EUSKARAREN NORMALIZAZIO PLANA JUSTIZIAN

# HAIZE FRESKOA ERDARAREN GOTORLEKUAN

Administrazioarekiko Auzietako 1 eta 2 zk.ko Epaitegiak  
Juzgados de lo Contencioso Administrativo 1 y 2

Lantalde Psikosoziala Judiziala  
Gabinete Psicosocial

Adingabeen Epaitegia  
Juzgado de Menores

Prokuradoreak  
Procuradores

Lehen Auzialdiko 7 zk.ko Epaitegia  
Merkataritza Auziako 1 zk.ko Epaitegia  
Juzgado de 1ª Instancia nº 7  
Juzgado de lo Mercantil nº 1



**EUSKARAREN TXOKOA**

AGENDA

ASTEBURURAKO PLANAK

**Txapelenen saioa**  
MARTXO 24  
Bazterreko Euzkera

**Ahozko eta idatzizko saioak**  
Euskaraz

**10. korrika ongi etorri**  
Euskaraz 10. korrika ongi etorri

**Argia**

Justizia Administrazioa gotorleku itxia izan da beti herritar euskaldunarentzat. Oraindik ere hala da, tamalez. Herri administrazioiko beste arlo asko bezala, justizia ere gaztelaniaren eremua izan da urteetan, eta euskarak ez du sarbiderik izan. Baina gauzak aldatzen doaz, emeki-emeki bada ere. Azken urteetan pausoak ematen ari dira justizia administrazioan euskararen erabilera sustatu dadin. Besteak beste, EMUN Lan mundua euskalduntzeko kooperatiba ari da justizia euskalduntzen.

**t. edurne begiristain**

**a. edorta sanz**

EAEko Justizia Administrazioa euskalduntzeko bidean urrats garrantzitsua ematen hasi zen EMUN kooperatiba 2004. urtean, Euskararen Erabilera Plana garatzeari ekin baitzion. 2012. urtera arte garatuko da Plan hori. Plan horren helburu nagusia da, kasu honetan, EAEko Justizia Administrazioan euskararen erabilera sustatzea eta gehitzea, bereziki bi eremutan: batetik, euskaraz egin nahi duen herritarrak esparru horretan euskara erabiltzeko aukera izan dezan, eta bestetik, ikasketa prozesuan dauden langileek beren maila eta ezagutza garatu eta ezagutza teorikoa praktikan jar dezaten.

Idatzizko erabilerari dagokionez, hiritarrari zuzenduko zaion dokumentazioan euskararen erabilera bermatzea da helburua, eta hori itzulpen automatikoarekin lortu nahi da, neurri handi batean. Ahozko erabilerari dagokionez, berriz, herritarrari zuzendutakoan eta lankide artekoan euskararen erabilera sustatzea eta gehitzea erdietsi nahi dute. Hori guztia egiteko, hiru bitarteko nagusi jarri ditu martxan EMUNek epaitegien: mintza saioak (langileei euskara praktikatu eta maila hobetzeko gunea eskaintzen zaie), terminologia saioak (laneko hizkuntza juridikoa ezagutu eta erabiltzeko), eta erabilera taldeak (langile euskaldunak eragile bihurtu eta motibazioari eusteko).

2007tik EMUNeko hamalau teknikari daude lanean Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako epaitegien. Gasteizko Epaitegian dabil Gorka Blanco. Bertan, aipatu hiru helburuei begira lan egiten du: bertako langileen euskararen erabilera handitzeko, haien artean hizkuntza-



izaro iriondo, arantza viribay eta maite herbias, justizia administrazioiko langileak; eta gorka blanco emun koop.e-ko hizkuntza-normalkuntzarako teknikaria

ren ezagutza handitzeko, eta euskararen aldeko motibazioa hobetzeko. Justizia administrazioan euskara “zerbitzu hizkuntza” bilakatzea da EMUNen erronka nagusia, bere esanetan.

**hori guztia egiteko, hiru bitarteko nagusi jarri ditu martxan emun-ek epaitegien: mintza saioak (langileei euskara praktikatu eta maila hobetzeko gunea eskaintzen zaie), terminologia saioak (laneko hizkuntza juridikoa ezagutu eta erabiltzeko), eta erabilera taldeak (langile euskaldunak eragile bihurtu eta motibazioari eusteko)**

Horretarako, EMUNen ekimenez, azken urtebetean egitasmo ugari martxan jarri dira Gasteizko epaitegian. Hala, euskararen erabilera handitzeko, besteak beste, honako neu-

rriak abiatu dituzte: nahi duten langileei eta epaitegian pinak, mahai-gainekoak, pintzak edota monolitoak banatu dituzte; banakako, binakako edo taldekako konpromisoak landu dituzte langileekin; aholku-sorta bidali zaie langile guztiei euskara erabil dezaten; jurisdikzio bateko zigilu erabilienak bi hizkuntzatan jarri eta gaizki daudenak zuzendu dituzte; ziurtagiriak bildu, bi hizkuntzatan sortu eta erabilera sustatu dute...

Euskararen aldeko motibazioa hobetzeko, berriz, beste hainbat ekimen burutzen ari dira: euskararen gaineko egun berezien berri ematen dituzte (Euskararen Eguna, Korrika, Durangoko Azoka...); euskararen txoko guztietan Barrutiko Batzordeen gaineko artikulua argitaratzen dituzte; epaile eta idazkariei urtean bitan Barrutiko Batzordearen ekintzen berri ematen zaie; GEU aldiakarian erabilera-planen gaineko artikulua argitaratzea,...

Azkenik, euskararen ezagutza handitzeko, bereziki mintza saioak egiten dituzte.





Gasteizen, ordubeteko saioak egiten dituzte astero, bertako bost langileekin. Hitz egiteko gaitasuna dutenak trebatu, eta terminologia juridikoa lantzen saiatzen dira hartu-eman horietan. Besteren artean, Izaro Iriondok, Arantza Viribayk eta Maite Herbiasek parte hartzen dute mintza saio horietan. Probintzia Auzitegian lan egiten du lehenak, eta Adingabeen Auzitegian, beste biek. Euren lanetan euskara erabiltzen saiatzen dira. Hirurek argi daukate herritarren eskubidea dela justizia administrazioan euskaraz aritzea, eta euren betebeharra dela hori bermatu ahal izatea. "Arlo guztietan oso

interesgarria da gure hizkuntza erabiltzea, eta gero eta jende gehiagok erabiltzen duenez, horri ere erantzuna eman behar diogu justizia administrazioetik", dio Viribayk. "Legeak dio hizkuntza biak ofizialak direla, eta jendeak eskatzen badu zerbitzua euskaraz eskaintzea, guk saiatu behar dugu hori bermatzen", gaineratu du Iriondok.

Legeak dioena gorabehera, errealitateak dio beste administrazio batzuekin alderatuta justizia atzeratuta dagoela euskararen erabilerrir dagokionez. Legez euskaraz jakitea ez da beharrezkoa EAEko Justizia Administrazioan

aritzeko. Eta, beraz, euskaraz ikastea erabat borondatezkoa da. "Jendea nahiko eroso da, funtzionarioak gara, eta euskara ikastea borondatezkoa da. Ez dugu ikasten behar dugulako, nahi dugulako baizik. Ez baduzu euskara ikasi nahi, ez da ezer gertatzen, eta hori da arazo nagusia. Horregatik ez da erraza euskara sartzeari", iritzi dio Herbiasek. Euren kabuz ikasi zuten euskara, eta ez lanpostua lortzeko ezinbestekoa zelako, izan ere, argi daukate funtsezkoa dela gure hizkuntza jakitea. "Nik euskara ikasi nuen ez lanposturako, nik nahi nuelako baizik, nire haurrekin hitz egiteko", azaldu du Herbiasek.



“Bai, baina orduan guk helburu batekin ere egin genuen, justizian lan egiten genuelako. Epe luzerako helburu bati begira ere ikasi genuen euskara”, erantsi du Viribayk.

Une honetan, euskararen erabilera normalizatu batetik urruti samar dago Justizia Administrazioa, baina urrats txiki batzuk hasiak dira ematen. EMUNeko teknikariak hala nabaritzen du, bederen. “Motel goaz, baina aurrerapausoak eman ditugu, oso denbora laburrean euskararen presentzia handitu egin da”. Berandu eta astiro hasitako prozesua da, eta ez da goizetik gauera egingo den zerbait. “Denbora beharko da jendea euskalduntzeko”, dio Viribayk.

Denbora ez ezik, neurri eraginkorrak ere jarri beharko lirateke Justizia Administrazioa euskalduntzeko. Blancoren aburuz, euskara ikasteko boluntarismoa ona izan daiteke, baina neurri bateraino: “Teknikari moduan ikusten dudan zailtasunik handiena da boluntarismoz egiten direla gauzak, eta administrazioan gaude, ez zait iruditzen horrela izan beharko litzatekeenik”. Eusko Jaurlaritzak gehiago inplikatu beharko lukeela iritzi dio Viribayk, eta funtzionarioek ez ezik, epaileek, magistratuek, idazkariek eta gisa horretako postuetan daudenek ere euskalduntzeko urratsak eman beharko litzateke. Esaterako, epaiak oraindik gaztelera hutsez idazten direla gogoratu du Iriondok, eta hori atzerapauso dela. “Ez da oraindik euskaraz kaleratu den sententziarik”, diosku.

Epaia oraindik ez, baina bestelako dokumentuak ari dira euskarara itzultzen. Hala, EMUNen ekimenez, hainbat epaitegitan itzulpen automatikoko programak instalatu dira, eta orain arte gaztelera hutsez argitaratzen ziren auto, akta, probidentzia edota jakinarazpen ugari bi hizkuntzatan kaleratzen dituzte orain. Orain arte, Gasteizko Epaitegian, Lan arloan, Administrazioarekiko Auzi-prozesuetan, eta Lehen Auzialdian instalatu dituzte itzulpen automatikoko programak ●

## ERREGISTRO ZIBILEAN EUSKARAZ

**Hemendik aurrera jaiotza, ezkontza, tutoretza eta heriotza inskripzioak euskaraz egiteko aukera izango da Gasteizko Erregistro Zibilean**

Gauza jakina da Justiziaren arloa, herri administrazioiko beste arlo asko bezala, gaztelaniaren eremua izan dela mendeetan zehar eta euskarak ez duela sarbiderik izan hizkuntzaren erabilera formala nagusi den tokietan. Udaletan eta beste administrazio batzuetan urratsak egin diren arren, Justizia administrazioa gotorleku itxia izan da -eta oraindik ere hala da- herritar euskaldunarentzat.

Hala ere, azken urteetan pausu xume batzuk eman dira, batez ere idatzizko erabilera hedatzeko. Horien artean garrantzitsuena Erregistro Zibilean egin den aldaketa izan da. 2005ko lege aldaketa baten ondorioz, herritarrak aukera izango du, adibidez, haur jaio berriaren inskripzioa euskaraz egiteko.

Lau liburu nagusi erabiltzen dira Erregistro Zibilean: jaiotza liburua, ezkontza liburua, tutoretza liburua eta heriotza liburua. Orain arte inskripzio guztiak gaztelania hutsez egitera behartzen zuen legeak, baina aipatutako lege aldaketaren ondorioz, herritarrak aukera izango du:

- Inskripzioak euskara hutsez edo gaztelania hutsez egiteko, berak aukeratzen duen hizkuntzan.
- Liburuetan jasotakoari buruzko ziurtagiriak euskara hutsez edo gaztelania hutsez jasotzeko, ziurtagiriak inskripzioaren hitzez hitzeko kopiak direnean.
- Inskripzioa hizkuntza batean egiteko, baina ziurtagiria beste batean eskatzeko. Inskripzioa euskaraz egin daiteke, baina gero egunen batean agiriren bat behar bada gaztelaniaz, eska daiteke.

Aukera hauek baliatu ahal izateko aldaketak eginak daude Gasteizko Erregistro Zibilean, eta otsailaren 11tik aurrera herritar guztiak erabil dezakete eskubide hori. Amurrioko Erregistroan, berriz, apiriletik aurrera izango da aukera hori, eta gainerako erregistroetan beranduago.

Beraz, gasteiztar guztiak animatu nahi ditugu eskubide hori erabil dezaten, ea Justiziaren gotorleku honetan haize fresko pixka bat sartzea lortzen dugun.

*barrutiko batzordea*



## COLOPHON 2009

Luxenburgoko aldizkari independenteen mundu mailako topaguneak herrialde bakoitzeko agerkari onenak biltzen ditu

Martxoaren 13tik 15 bitartera izan da

# ALDIZKARI INDEPENDIENTEEN TOPAGUNEA

t. a. maider lacalle

Colophon 2009 ekitaldiaren bigarren edizioa baino ez dugu. 2007an izan zen lehena, eta jada planeta osoko 100 aldizkari baino gehiago biltzen ditu. Hitzaldiak, erakusketak, tailerrak eta festa batzen dituen ekitaldia aldizkarien munduan adituak baino adituago diren Mike Koedinger, Jeremy Leslie eta Andrew Losowsky-k sortu zuten, "aldizkari independenteetan lanean ari diren profesionalak biltzeko" asmoarekin. Lehena, Luxenburgoko aldizkari independenteen arloan pertsona ospetsua da eta Leslie eta Losowsky Erresuma Batuan jaiotako eta diseinuaren inguruan lanean aritzen diren profesionalak dira. Leslie Time Out London aldizkariako arte zuzendaria izan da eta Losowsky Bartzelonako LeCool Publishing argitaletxeko zuzendaritza editorial lanetan ibilita dago.

Batek baino gehiagok harridura azaldu du aldizkari independenteen azoka Luxenburgoko bezalako hiri batean burutzearekin. Luxenburgok 90.000 biztanle inguru besterik ez ditu, Gasteizko populazioaren erdia baino gutxiago. Bestetik, Europako Inbertsio Bankua (Banque Européenne d'Investissement) bertan dago, Europako Justizia Auzitegiarekin batera; Luxenburgoko Europar administrazioko bihotzetako bat da, Bruselas eta Estrasburgo dira beste biak. Azkenik, 200 banketxe baino gehiago ditu Belgika, Alemania eta Frantzia artean kokatuta dagoen herrialde honetako hiriburuak.

Koedingerren hitzetan "Luxenburgoko hiri internazionala eta hizkuntza bat baino gehia-

go hitz egiten den lekua izateaz gain konexio ezin hobeak ditu Europan. Azoka ezin liteke Londres edo Parisen gauzatu gonbidatuak hiri handi hauetan galduko liratekeelako". Colophon 2009 ostegunean, martxoaren 12an, hasi zen azokan sartzeko 90 euro ordaindu zituztenei afari gonbita luzatuz. Ostiralean hitzaldien txanda izan zen, goizeko 10etatik aurrera eta asteburu osoan zehar luzatuz. Hizlariak argitalpenen diseinua, tipografia eta arrakasta komertzialaren inguruan aritu ziren Luxenburgoko Casinoan. Tartean ere, publikoaren aurrean aldizkari desberdinen zuzendari eta arduradunekin hizketan egon dira Koedinger eta Leslie. Sakonegia gertatuz gero, proiektu gelan ilustrazioa, argazkilaritza eta diseinuarekin erlazionaturiko artisten lanak ere izan ziren erakusgai.

**denek dute zeozero komunean:  
bizirik irauten saiatzen ari dira  
gero eta komertzializatuago  
dagoen mundu honetan**

Aurtengo Colophonek mundu osoko aldizkari independente onenetarikoak biltzeaz gainera, hamar agerkari gonbidatu ditu Luxenburgon erakusketa bereziak eskaintzeko. Hauen artean daude arestian aipaturiko lau aldizkariak; hauetaz gain, Baby Baby (Mexiko), Karen (Erresuma Batua), La Más Bella (Espainia), Liebling (Alemania), Sang Blue (Suitza) eta Volume-ek (Herbehereak) ere erakutsi dituzte haien kolore eta tipografiak hirian zehar sakabanaturiko eraikinetan.

Guztira, asteburu interesgarria eta entretenigarria izan da eta 90 eurok Luxenburgoko aldizkari azoka batean ere asko eros dezaketela frogatu da: afariak, hitzaldiak, jaiak, tailerrak eta erakusketak. Ez dago gaizki. Hobe zegokeen hala ere, Casinoko edari eta jana-riak merkeagoak izan balira; zuku edota garrardo edalontzia 2na euroan izanik, garesti xamarra gertatu zaio askori jaki eta freskagarri aukera hau.



KOLOFOIA TIPOGRAFIARI LOTUTAKO HITZA DA; LIBURU BATEAN ZER-NOLAKO LETRA MOTA ERABILI DEN ETA HONEN INGURUKO HISTORIAREN EZAUGARRIAK EMATEN DITUENA. HONEZ GEROZTIK HARTZEN DU IZENA BI URTERO LUXENBURGON GAUZATZEN DEN COLOPHON ALDIZKARI ERAKUSKETAK. BERTAN AURKEZTEN DIRA MUNDU MAILAN NAGUSIEN DIREN ALDIZKARI INDEPENDIENTEAK; NUKE (FRANTZIA), GOOD (EEBBAK), KASINO A4 (FINLANDIA) ETA IDN (HONG KONG), BATZUK AIPATZEARREN.

Aipatutako aldizkariak eta askoz gehiago aurkitu ahal izan zituzten Colophonera gerturatu zirenek. Kolore biziak, tipografia berezia, ilustrazio ez-zehatza, eta itxura estandarra ez duten aldizkariak jo ditzakegu independente-tzat. Aurtengo azokak erakutsi duen moduan, anitz dira irakur ditzakegun aldizkari independenteak. Dena dela, denek dute zeozero komunean: bizirik irauten saiatzen ari dira gero eta komertzializatuago dagoen mundu honetan ●



luxenburgoko casinoan gauzatu ziren colophon 2009ko ekitaldi gehienak

> **Good** aldizkaria (<http://www.good.is/>) "mundua aldatu nahi duten guztiei" dago zuzenduta. Iragarkiak dira honen diru-sarrera nagusia eta harpidetzetatik ateratako dirua irabazi-asmorik gabeko erakundeetara bideratzen da. Diseinua New Yorken sortzen da eta eduki idatziak Los Angelesen. Bien bitartean ordenagailua besterik ez dago; emailaz eta konferentzia deiez bideratzen da bi bulegoen arteko kontaktu gehiena.

> **IdN**-ren -Independent Designers Network- (<http://idnworld.com/>) historia desberdina da zeharo. Orain dela 18 urte sortu zen Hong Kong-en eta jada ingelesez eta txineraz kalera-tzen da Australia-Zelanda Berria, Asia-Pazifikoa, Txina eta merkatu internazionala asetzeko. Aldizkariaren izenak adierazten duen moduan, 100 orri inguru dituen agerkari hau diseinua preziatzen duten guztiei zuzenduta dago eta edizio bakoitza espezializazio bati eskaintzen zaio (azkena eskuarekin sortutako arteari dagokio). IdN-ko ekoizle Chris Ng-k adierazi duen bezala, "diseinuaren preziatzea handiagoa da mendebaldean ekialdean baino". Hori dela eta Chris eta bere taldea merkatu berrien bila ari dira.



> **Kasino A4** (<http://www.wearekasino.com/>) Finlandian sortu zen eta bere bederatzigarren alea plazaratu berri da. Argitalpenaren sortzaileek -haien artean Jonathan Mander- Kasino A4 "nostalgia aldizkari" gisa definitzen dute, eta "Finlandia munduko lekuri depresiboena" dela esatean zentzua du aldizkaria Eskandinaviako leku honetan sortu izana. Honen orrietan, esaterako, sexua eta komedia elementuak jorratzen dira.

> **Liebling** (<http://www.liebling-zeitung.com/>) (esanahiaz, maitea) Alemaniatik datorkigu eta honen berezitasuna egunkari formatua duela da; dirudienez, "eguneroko bizitzatik abiadura kentzeko asmoarekin" sortu zen itxura hau -web orriak liebling-zeitung du izena (zeitung-ek egunkaria esan nahi du). EEBBetan eta Erresuma Batuan banatu ohi da Liebling eta 140 orrialde inguru ditu. Hogeita zortzi euro-tara, aldizkari independenteekin konpetitu dezake lasai.

> Honetaz gain ere, aldizkari independente arrakastatsuen aurkezpenak ere eskaini ditu Colophon azokak, esaterako Berlineko **032c** (<http://www.032c.com/>) eta Londreseko **Eye** (<http://www.eyemagazine.com/home.php>) agerkariak.



## MIKE KOEDINGER,

COLOPHON ALDIZKARI INDEPENDIENTEEN AZOKAKO KO-SORTZAILE ETA KOORDINATZAILEA:

***“Espero dezagun merkatuek garbiketa prozesua egi-  
tea proiektu txarrak desagertu daitezen eta proiektu  
onek aurrera egin ahal dezaten”***



Mike Koedingerrek, Luxenburgoko aldizkari independenteen eremuan aski famatua denak, Jeremy Leslie eta Andrew Losowskyrekin batera Colophon sortu zuen 2007 urtean. Aurten bi urtero ospatzen den argitalpen independenteen azoka honen bigarren edizioak atak ireki dizkie adituei. Datu positiboez gainezka, Koedinger GEUrekin aritu da hizketan azokaren arrakastaren inguruan.



## **Zer behar ikusi zenituzten Colophon sortzerako orduan?**

Munduan zehar diseinu eta argitalpen ekitaldi komertzial ugari daude baina ezer ez aldizkari independenteen merkatuari zuzenduta. Colophon sortu aurretik, munduan zehar merkatu honetan lan egiten dutenen beharrak ez zeuden asetuta eta publikazioen arteko harremana ere ez zegoen aski estututa; ez zuten non elkartu. Colophonek honetarako aukera eskaintzen du.

## **Orduan, elkar ezagutzeko ekitaldia dela batez ere esan al dezakegu?**

Elkarezagutza, trebakuntza eta 40 ordu hitzaldi eskaintzen dituen azoka da Colophon. Inspirazioa ere sustatu nahi du sortzaileen artean. Hala ere elkarezagutza oso alde garrantzitsua dela uste dugu. Lehen edizioa eta gero aldizkari eta artista askoren elkarezagutza sortu zen eta sei hilabete beranduago aldizkarietan ikusi genuen emaitza.

## **Zeintzuk dira aldizkariaren ekoizpenarekiko duzun erlazioa?**

Editore independentea naiz eta Luxenburgon kokaturiko 42 pertsonako konpainiaren jabea naiz. Web orriak eta aldizkariak egiten ditugu, besteak beste, eta herrialdeko merkatuko ospetsuenak gara.

## **Nola jarri zinen azokako beste bi sortzaileekin kontaktuan?**

Jeremy eta Andrew elkar ezagutzen zuten dagoeneko, bezero berarentzat lan egin baitzuten. Jeremyk berak lan egiten duen konpainiaren barruan, John Brownen barruan alegia, idatzi eta diseinatzen ari zen aldizkaria zeharo gustuko nuen. Aurretik ere Jeremyren lanaren jarraitzailea nintzen eta behin Colophonen ideia bururatu zitzaidanean Jeremy eta Andrewrekin kontaktuan jarrita elkartu ginen. Oso argi zegoen hirurok aldizkarietarako pasio berdina genuela eta egun gutxitan martxan jartzen hasi ginen ekitaldia.

“**egun aldizkari guztiak daude arriskuan eta zailtasun ekonomikoak dituzte; hau bai alderdi komertzialean bai independentean gertatzen ari den zozter da**

## **Zeintzuk izan dira aurtengo emaitzak aurreko edizioarekin alderatuz?**

Aurtengo eskaintza zabalagoa izan da eta hitzaldiak bi gelatan eskaini dira eta ez batean, 2007ko edizioan gertatu zen bezala. Honek programan aldizkari arrakastatorio gehiago sartzeko aukera eman digu. Aurten 15 arrakasta istorioren inguruan

aritu gara, denok jakin nahi baitugu gainontzeko publikazioak nola ari diren aurrera egiten!

## **Zeintzuk dira aurtengo edizioako erakustaldietara gonbidatu dituzuen 10 aldizkarietatik zure gogokoenak?**

Aldizkari berriak sortzen eta zaharrak gartzten ari dira etengabe baina pare bat aipatzearren Sang Bleu eta Liebling izango lirarteke. Denak maite ditut, ez baikenituzkeen aukeratu bestela, baina azken bi hauek nire gogokoenak dira. Oso pozik nago Sang Bleuk emandako aurrerapausoekin; hirugarren alea kaleratu berri du eta zoragarria da. Diseinu grafikoan eta tipografian adituak diren profesionalak sortzen dute aldizkaria eta oso proposamen berezia da haiena. Tatuajeen inguruan oso sofistikatu den aldizkaria da. Artikuluak ere oso ondo idatzita daude.

## **Zeintzuk dira aldizkariaren merkatuaren beharrak?**

Orain ekonomiak gora egin behar du. Egun aldizkari guztiak daude arriskuan eta zailtasun ekonomikoak dituzte; hau bai alderdi komertzialean bai independentean gertatzen ari den zozter da. Espero dezagun merkatuek garbiketa prozesua egitea proiektu txarrak desagertu daitezen eta proiektu onak aurrera egin ahal dezaten ●

**BETAURREKO PROGRESIBOAK:**

**147,00 €** (kristalak barne)

**MENDIA OPTIKA**

DESDE 1856 AZ GERO

**MULTIOPTICAS**

Andre Maria Plaza t. 945 23 24 48

Olagibel, 33 t. 945 25 40 84

GASTEIZ



**EGUR**

- Zurezko teilatuak
- Berrikuntzak

Padurea kalea, 12, 16 Pab.  
Goian Industrialdea  
Tl/Fxa: 945 465 921  
Tl. 627 417 747  
info@egur.es  
www.egur.es  
01171 Legutiano (Araba)



**GORETTI**  
ILEAPAINDEGIA  
Hedegile kalea (Korre), 14  
(San Migeleko pasabidea)  
Tl: 945 12 08 88 - 01001 - GASTEIZ

**ARANBIZKARRA**

**ZURE  
AUTOESKOLA!**

Valladolid kalea, 16  
Tfnoa. 945 28 28 39  
01002 GASTEIZ

**dalvez**

info@dalvez.com



**TREBIÑU SAGADOTEGIA**

EGIN TXOTX!  
SAGADOTEGIKO MENUA  
ASTEBURUTAN IREKITA. DEITU AURRETIK  
Trebiñuko ASKARTZAN 945244852 / 657736599

945 22 21 53  
geu aldizkaria & elkarteak | pedro asua, 2 - 3.a  
01008 gasteiz www.geugasteiz.com

**GEU** **geu**  
ELKARTEA

**Iturrieta**

**TXOTX!!**

**bertako sagardoa**

**Sagardotegia**

OSTEGUNETIK AURRERA  
IREKITA.  
Gaintzeko egunak,  
enkarguz.

<http://iturrietasagardotegia.blogspot.com/>

**ITURRIETA BASERRIA - ARAMAIO (ARABA) Tl.: 945 445 385 - 685721593**

# proposamenak

## liburua

### 'euskaldun guztion aberria'

iban zaldia alberdania-09 [www.alberdania.net](http://www.alberdania.net)



«euskaldun guztion aberria euskalka da»

zer garen eta zer izan nahi genukeen. hara hor buruhaustek eragiten dizkigun arazo bat, bai alor pertsonalean bai alor politikoan ere, herri bat (edo bi, edo hiru edo batere ez) garenez gero. eleberri honetako protagonista, joseba anabitarte, eskizofrenia batean bizi da. unibertsitateko irakaslea da, aspertuta dago gure hemengo giro politikoarekin. baina aspertze horien arrazoiak oso ezberdinak izan daitezke andrearekin baldin badago edo koadrilako bere lagun minarekin, edo zuriñe bere ikaslearekin. alaskako unibertsitate batetik etorri zaio eskaintza bat, euskal herriari buruzko ikastaro bat emateko. aukera ederra iruditzen zaio euskal herritik ihes egiteko. edo beste zer edo zerekin doa ihesi? kontua da ihesi doala, behintzat. alaskan, bakar-bakarrak, eta gure herriari buruz deus ez dakitenen aurrean, euskal herriaren historia fantastiko bat asmatzen du.

gazia da, sarkasmoz betea, lehen hitzetik harrapatzen zaituena, pindartsua. hitz batean, umoretsua da, bai, eleberri labur hau, baina irakurri ostean min eragiten duena.

## liburua

### 'rita poloa' & 'rita tenislari'

mikel valverde elkar-09 [www.elkarlanean.com](http://www.elkarlanean.com)



**RITA TENISLARI.** ritak gehien-gehien maite duena kantua eta dantza dira, eta ospetsu izan nahi du. gitarrarik ez duenez, aitaren teniseko erraketa hartu eta bere gelan ixten da kontzertuak eskaintzeko. gurasoek uste dute alabak tenislari izatearekin amets egiten duela, eta hari ezusteko polit bat ematea erabakitzen dute. zer egingo du ritak? berari ez zaio tenisa gustatzen!

umorezko abentura, ospeari eta amatei buruzkoa.

**RITA POLOAN.** rita bere aitarekin doa ipar polora. osaba daniel ikerlaria han dago, eta hark gonbidatu du iloba; aukera ezin hobea ritak paraje haiek eta inuit herria ezagutu ditzan. baina aita-alabak polora iritsi direnean, osabak bidaiatzen zuen itsasontzia izotz artean harrapatuta dagoela jakingo dute. ez dago denbora galtzerik. erreskatatu egin behar dute! ritarekin abentura zirraragarria biziko duzu, eta adiskidetasunaren garrantzia ezagutu.

## cd

### gasteiz big band

dantza baltza saila gaztelupeko hotsak-09 [www.hotsak.com](http://www.hotsak.com)




generoaren klasikoak jotzen 12 urte eman ostean eta hainbat musika molderekin filtrean ibili eta esperimentatu eta gero, gasteiz big band taldeak berea duen estiloa ondu du, eta horren erakusgarri da aurreneko single hau, datorren albumaren aurrerakina. lan honetan big band taldeek berezko duten izpiritu, izpiritu dantzagarria, jostakina, islatzen du talde honek gure garaiko koordinatuetan, non taldearen berezko kolorea oinarri elektroniko, scratching, rap, perkusio latino eta beste batzuekin nahasten den, jimmy bidaurretaren zuzendaritzapean. hainbat urtetan martxan dabilen gasteizko formazio musikalaren lehen grabazioa da. diskoa, 10 hatzbeteko biniloan kaleratuko da.

## musika

### EDATOZEN FESTIBALAK, EUSKAL TALDEAK BARNE?

t. uhina



Udaberria heldu da eta honekin batera berriro ere festibalak eta makrofestibalak izango ditugu. Negu gogor bat pasatuz gero, merezi dugun kalitatezko musika entzuteko garaia iritsi zaigu. Hasteko ARF izango dugu maiatzean kartel nahiko potente batekin rock'n rollari dagokionari. Uda heltzearekin, ekainean, heavy eta metalaren zale-entzako Kobetasonik festibala daukagu. Uztailean berriz, BBK Live, talde komertzialagoak ezagutzeko beste aukera bat. Bestalde, Gasteiz eta Donostiako Jazzaldiak ezin ditugu ahaztu.

Azkena Rock Festibaleko kartelari begirada bat botatzen badingu berehala konturatuko gara zer-nolako maila duen festibalak eta aurrean apustu handia egin dela dataren aldetarekin. Kobetasonik eta BBK Liven kasuan ere gauza berataz konturatuko gara. Argi dago Euskal Herrian egiten diren makrofestibalek gero eta maila handiagoa daukatela eta gero eta jende gehiago mugitzen dela horrelakoetara publiko gisa, leku ezberdinetatik etorritako jendea jakina!

Halarik ere, hemengo taldeak ez al dira erabat kanpo geratzen? Ezinezkoa da horrelako festibal handi batean talde lokalak besterik eskaintzea, bestela ez zatekeen makrofestibal bat izango, eta izan ere, urte osoa daukagu areto desberdinetan hauetaz goza gaitezen, baina benetan ez dago bertako kalitatezko talderik horrelako ikuskizun erraldoi batean parte hartzeko?

Agian antolatzaileak, baita erakundeak ere, ez dira konturatu edo hobe esanda, ez dute hemengo taldeen garrantziaz eta proiektioaz ohartu nahi. Gonbidatzen ditut, beraz, programazio ofizialarekin batera beste makromikro-mikromakro festibal paralelo bat antolatzera, egun batzuk lehenago adibidez, bestelako areto txikietan, baita kalean ere. Musika geure kulturaren ikurra izaki zergatik ez zaie hemengo taldeei horrelako aukerarik ematen? Sarri gertatzen den bezala, kanpoan dagoena hobeto dagoela pentsatzen dugu, etxean dagoena baino ●

## ARABAKO EUSKARA 10 DATUTAN

kike fdz de pinedo

Aurten makina bat Korrikazale elkartuko dira gure kaleetan apirilaren 5ean Korrikaren ibilbideari bukaera emateko asmoz. Aitzakia ona, beraz, gure lurraldearen euskararen ibilbidea 10 etapatan laburtzeko:

1. Erromatar garaian beste lurraldeetan bezala itxura indoeuroparra edo latinoan duen onomastika nagusitzen da. Badira, ordea, hila-rietako izenen artean sei, euskal itxura dutenak: *Helasse* (Miñao), *Luntbelsar* eta *Lutbelscottio* (Durruma) eta desagertutako: *Aituneo* (Araia), *Illuna* (Iruña Oka) eta *Atea* (Olabarri).
2. Erdi Aroan herrien izenek euskararen sendotasuna erakusten digute lurralde gehiengan. Hego-mendebalean eta Arabako Errioxan, berriz, izen erromantzeak nagusitzen dira, euskal izenak agertzen badira ere.
3. Arabako euskara, mendebaleko euskalkian kokatu behar da (*berba*, *gura*, *uri*, *barri*) eta Erdi Aroan, Gasteiz eta inguruak euskalki honen eragingune garrantzitsua izan bide ziren. Euskalkia gurean ez zen homogenea eta ezker-eskuin hiru eremutan banatzen zen.
4. 1181ko foruarekin batera *Victoria* izen erromantzeak ordura arteko *Çasteiz* ordezkatzeko du. Izen hau, itxuraz, Erdi Aroko *Çaste* (gazte) pertsona izenez eta *-iz* atzizkiak osatua dago. *Araba*-ren lehen agerpena, berriz: *Orti aravarra*, XIII. mendeko agiri batean.
5. Lehen euskal hiztegi handia Gasteizen egin zuen Landuccio italiarrak 1562an. Hemen, *Zamargina calea* (Correria-Hedegile), *errexala* (zuhaitza), *ardaogurea* (ardozealea) edo *achitamachia* (tximeleta) irakur daitezke. Garai hartan erromantzea eta euskara mintzo ziren hirian.
6. XVI eta XVII. mendeetako hainbat agirik arabar gehienak (Iparraldea, Lautada, Koartango, eta Trebiñu eta Mendialde gehiena) nagusiki euskal elebakarrak zirela erakusten digute.
7. Euskararen galera nagusiki XVIII. mendean eta XIX.aren hasieran gertatu zen, eta beranduago iparraldeko eskualdeetan. Galera azkarra izan zen, askotan bi belaunalditan emana. Halere, oraindik Aramaion eta Olaetaz gain, badira jatorrizko euskaldunak Baranbio, Legutio, Elosu edo Nafarraten...
8. Euskal literaturan uste baino protagonismo handiagoa izan dute arabarrek: Lazarraga (hegoaldeko lehen liburua), Betolaza (lehen doktrina), Barrutia (lehen antzerki-obra), Jauregi (lehen fisika-kimika liburua), Gamiz, Albeniz, Ulibarri...
9. 2006ko datuen arabera, euskaldunak gara lau arabarretatik bat! Ikusgarria da azken 30 urteetako euskararen berreskuratzea!
10. Hizkuntzaren iragana ezagutzeak laguntzen du, baina gogoia edo borondatea ezinbestekoak ditugu euskararen korrikan. Beste hitzekin esanda: *Çara garelako eta nahi dugulako* ●

# errezeta

diocesan- mendizorroztako ostalaritza eskola

## PRUDENTZIO DEUNA BARRASKILOAK

### Osagaiak

Kilogramo bat barraskilo  
Kilogramo bat tipula  
Bi porru  
Azenario laurdena  
Baratzuri buru bat  
6 piper txorizero  
Pipermin lehor bat  
125 gramo txorizo  
125 gramo hirugiharre  
Iberiar urdaiazpikoa (125 g inguru)  
Urdaiazpiko hezur bat  
Kilogramo bat perretxiko

### Elaborazio prozesua:

Lehenik eta behin barraskilo lodienak aukeratu eta bi astetan baraurik utziko ditugu. Ondoren, ongi garbitu eta gatz lodia eta ozpinarekin purgatuko ditugu, mukositete guztia jaregin arte. Herrialde batzuetan barraskiloak neguan jaten dituztenez, ez dira hain zikinak



egoten. Garbi daudenean barraskiloak "izutu" egin behar dira: horretarako, ur hotzarekin eta su moteletan ipiniko ditugu, ura berotze den heinean barraskiloak oskoletik irtetzen ahalegintzen direlako, eta oskoletik irtenda daudenean, indar gehiago emango diogu suari pixkat egos daitezen.

Bigarrenez, barraskiloak xukatu eta ur epelarekin garbituko ditugu. Ontzi batean ur garbiarekin egosten utziko ditugu eta irakiten 5 minutu pasatu eta gero berriz ere prozesu berdina egingo dugu.

Hirugarrenez eta azkenik, aurrez barazkiekin, piper lehorrekin eta urdaiazpiko hezur

batekin lurrineztatutako saltsa batekin egosiko ditugu. Egoketa puntura ongi iritsi direla ziurtatuko dugu, eta ondoren, saltsa gerorako gordeko dugu.

Komenigarria da barraskiloak oso ongi garbitzea gasteropodoa ongi atereaz bere oskoletik (barraskiloaren atzealdea baztertu egiten da) eta ondoren oskola bera perretxiko eta barraskiloarekin beteko dugu, eta urdaiazpiko zati batekin itxi.

Saltsa egiteko lehenbiziko pausoa brunoi-se erara txikitutako tipula, txorizo, hirugiharre, tomate frijitu (burduntzali bat), piperrauts gozoa, txorizeroaren haragi eta urdaiazpikoarekin hondo bat egitea izango da buztinezko ontzi batean. Ondoren, ongi loditzen utziko dugu dena egosketarako aurrez erabilitako saltsarekin batera eta egosten utziko dugu. Barraskiloak botako ditugu saltsatarara (eragin gabe) eta ontzia sutatik aterako dugu. Onena platera bezperan prestatzea da ■



**KIDE**  
APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ



m. josean morlesin



## zutabea

### Apirilaren 2az oroit

t. erlantz urtasun antzano.  
historialaria



Martxoaren hasieran idazten ari naiz, irakurle maitea, erran nahi baita oraindik ez dakidala nor den, egun eta hemen, Araba, Bizkaia nahiz Gipuzkoako lehendakari autonomikoa. Hots, auskalo nor den, baina nago apirilean Arabak ez duela arabar lehendakarik izan.

Horren erdiestekotz, halaber, alferrikakoa litzateke ukatzea itzaletan, gerizpean, hamaika itun sinatu denik. Eta horrek adierazi nahi du, ildo beretik, arabar diputazioan nagusi dena bere horretan dela edo, agian, aldarazi egin dutela. Gasteizko udaletxean, haatik, litekeena da mudantza handirik ez izatea, bertzelako arabar udaletan bezala, alegia.

Eta, hondarrean, historialaria naizenez, oraino aipatu guziak dexente oldoztarazi, pentsarazi dit. Hausnarketa, gogoeta tarte nagusi, dena delako lehendakari.

Apirilaren 2az oroitu bainaiz, ez 2009koaz, 1332koaz baizik. Apirilaren bian, hortaz, hil honetan bertan, udaberriarekin baterat "aldaketa" iritsi zen, iritsi da?

Alexandriako Liburutegiko errautsetatik salbatu nuen liburu mardul zahar bat ireki eta haxe irakurri ahal izan baitut: "2 de abril de 1332. Se firma en Vitoria la escritura de incorporación de Alava a Castilla, reconociendo ésta su fuero".

Jarraian, burumakur, bihotz goibel, ikatza bezain belzturik dagoen bertze liburu bati egin diot begirune: "se ha de restituir a este Reyno de Navarra lo que solía extender antiguamente como es pública voz y fama que era señor de Guipúzcoa, Vizcaya y Alaba y mucha parte de Rioja hasta el holmo de Burgos. Que todo ello se restituya, assí como antiguoamente solía, no obstante qualquiera lasso y discurso de tiempo. Y no les valga prescripción ni otro derecho alguno".


Azken hau 1540an sinatu zuten nafar ordezkari politikoek Iruñean, Amaiurren galdu eta 18 urte beranduago. Bada, behin eta berriz irakurri egin dut, hasiera berria behar dugun honetan...■

geusex@emaize.com

Argitu nahi duzun sexualitateari buruzko zalantzarik ala jakin-minik al duzu?

Hilerik hile zure galderak erantzungo dizkizugu. Sexualitatearen inguruko arlo desberdinei buruz galde diezagukezu.

Anima zaitetz eta bidali hona zure galderak: geusex@emaize.com



## Emaize Sexologia Zentroko profesionalek erantzungo dizute.

emaize sexologia zentroa. gizon eta emakumeentzako arreta

bueno monreal 1-behea / 01001 gasteiz / 945265896 / www.emaize.com

**Entzun dut hilerokorako beste metodo berri bat dagoela, "Moon Cup" deitzen omen dena. Nahiko nuke informazioa honi buruz. Eskerrik asko!**

Bai hala da. Ez da metodo oso berria egia esan, 30. hamarkadan sortu baitzuten, baina arrazoia duzu azken urte hauetan jende gehiago ezagutzen ari garela.

Alde on asko ditu *moon cup*-a edo hileroko kopak:

- Ekonomikoki tanpoiak edo konpresak baino askoz ere merkeagoa da. Honek 30 euro balio dezake, baina urte askotarako balio du. Kontuak atara: Emakume bakoitzak bere bizitza osoan 10.000 konpresa edo tanpoi erabiliko ditu.
- Ekologikoki ere askoz hobea da, berdina urteetan erabiliko dugu-lako, 10.000 konpresa edo tanpoi erabili beharrean.
- Silikonaz egina dago, material naturalagoa dena eta tanpoiak eta konpresak erabiltzen dituzten zuritzailerik gabe egina. Hala ere, badaude tanpoi eta konpresak produktu zuritzailerik gabe egiten dituztenak, garestiagoak direnak, baina naturalagoak. Produktu naturalago hauek edozein emakumerentzat hobeak dira eta azal berezia edo alergia eta ekzemak dituztenentzat are gehiago.

- Bestalde, 6 edo 8 ordu izan deza-kezu jarrita hustu eta garbitu gabe. Hau aldatuko da hilerokoa-ren egunaren arabera eta emaku-mearen fluxu kantitatearen ara-bera. Emakume bakoitzaren bizi-tza erritmoaren arabera, oso ero-soa izan daiteke. Aldatzeko inti-mitatea behar dugu komunean, garbitzeko. Lantokiaren arabera agian deserosoa izan daiteke, bakoitzak ikusi beharreko kontua da hau. Baina etxean ez dugu trabarik izango, agian etxean erabiltzeko eta lo egiteko egokiena izan daiteke.
  - Kontuan izan behar dugun beste datu bat bakoitzak bere geni-talekin duen "maneiua" izango da. Honekin arazorik ez badu-gu, azkar ohituko gara.
  - Bi tamaina ezberdin daude: 30 urte baino nagusiagoentzat edo erditu dutenentzat handiagoa; eta beste txikiago bat.
- Informazioa izanik, zure beharren, nahien eta lehentasunen ara-bera erabaki.



miren lopez de arregi lakuntza

**ERAMAN ETA JAN**  
**"kalitatea eta erosotasuna zure esku"**


Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25  
 Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36  
 Gorbeia Merkaturia - Zaldian plaza GASTEIZ


**El Clarete**  
*jatetxea*

unai eta patri fdz. de retana

zerkabarren kalea, 18  
 gasteiz 945 263 874





**MONDRAGON  
UNIBERTSITATEA**

HUMANITATE ETA  
HEZKUNTZA ZIENTZIEN  
FAKULTATEA

FACULTAD DE  
HUMANIDADES Y  
CIENCIAS DE LA EDUCACIÓN

## 2009-2010 ikasturterako eskaintza

INSKRIPZIO EPEA ZABALIK

### HEZKUNTZA ARLOA

**HAUR HEZKUNTZAN GRADUA** *(Europako Goi Mailako Hezkuntza esparrura egokituta)*

**LEHEN HEZKUNTZAN GRADUA** *(Europako Goi Mailako Hezkuntza esparrura egokituta)*

#### **IRAKASLE IKASKETAK 2. DIPLOMATURA:**

- > Haur Hezkuntza espezialitatea
- > Hezkuntza Berezia espezialitatea
- > Entzumena eta Mintzaira espezialitatea

**PSIKOPEDAGOGIA LIZENTZIA** *(bigarren zikloko lizentzia, on-line eta erdi presentziala):*

- > Hizkuntzen Psikopedagogia
- > Esku-hartze Psikopedagogikoa

### IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIO ARLOA

**IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOAN GRADUA** *(Europako Goi Mailako Hezkuntza esparrura homologatze bidean)*

#### **INFORMAZIO GEHIAGORAKO:**

**HUHEZI** (Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea)


Dorleta auzoa z/g, 20540 Eskoriatza - GIPUZKOA

Telefonoa: 943 714157 - Faxe: 943 714032

e-maila: sarrera@huhezi.edu

## DEIALDI BERRIA!

Eskaeren aurkezpena  
2009.04.01 >> 2009.06.01



### Bekadun artistak 2007-2008

Ander Perrino • David Alcorta Ruiz • Elena Aitzkoa • Iara Solano • Ignacio Mozo • Iñaki Zulueta • Jaime Gartzia • Mabi Revuelta • Maider López • Rakel Marín Ezpeleta • Sandra López de Maturana • Silvia Zayas • Víctor García de la Torre • Zuriñe Fernández Gerenabarrena • Amaia Navascués Alberdi • Ana Lezeta Murguzur • Aurelio Edler Copês • Blanca Ortiga • Carla Fernández • Juan Corres Benito • Leire Bolumburu Eyara • Maddi Arana Bueno • María Andueza Olmedo • María Serna Aguirre • Patricia Cangas Rumeu • Rubén Díaz de Corcuera • Yolanda de los Bueis

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

## KREA 2009 BEKA PROGRAMA

Arte plastikoak

Ikus-entzunezko arteak

Musika

Dantza

Antzerkia

Solidaritatea

Iraunkortasuna

INFORMAZIO GEHIAGO  
[WWW.KREARED.COM](http://WWW.KREARED.COM)

# KREA

EXPRESIÓN CONTEMPORÁNEA

Caja Vital Vital Kutxa

[WWW.KREARED.COM](http://WWW.KREARED.COM)

[INFO@KREARED.COM](mailto:INFO@KREARED.COM)

TEL / FAX +34 945 150 147